



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

NOLA ERATU GELAKO ETA ESKOLAKO LIBURUTEGIA DISKRIMINAZIOAK SAIHESTEKO

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Caballero Rodriguez, Natalia.

ZUZENDARIA: Ezeiza Ramos, Ainhoa.

2020

LABURPENA

Planteatu beharko genuke irakasle (eta baita gizarteko partaide) moduan, zein puntutaraino ari garen diskriminazioa legitimatzen eta zein modu ezberdinetan. Arrazakeria, diskriminazio modu bat gehiago da gizartean, eta gainontzeko diskriminazio moduekin batera, aurre egin beharko litzaioke. Hezkuntzatik, posible da diskriminazio hau murriztea, eta hori egiten hasteko gure burua, kurrikuluma, baliabideak, jokaerak eta abar behatzea eta horiekin kritikoak izatea beharrezkoa da.

Haur Hezkuntzan oso erabilia den baliabide bat ipuina da. Haur literaturaren bidez, asko landu daiteke, baina horrekin zer islatzen den behatu beharko litzateke. Lan honen lehenengo atalean, marko teorikoan, diskriminazioaren xehetasunak eta eragina azaltzen da, ipuinekin duen erlazioa agertuz. Ostean, metodologia dator, non, liburuak analizatzeko taula bat atxikitzen den. Analisiaren atalean, hori bera erabilita, sei liburu ezberdinen analisia agertuko da, eta ostean, analisi horren ondorioak. Ondorio hauek, eskolako edo gelako liburutegia anitza eta antiarrazista izateko aholku ezberdin moduan agertuko dira, eta azkenik mugak eta hobekuntza proposamenak.

RESUMEN

Deberíamos plantearnos como profesoras/es (y también como participantes de la sociedad), hasta qué punto estamos legitimando la discriminación y en qué formas diferentes. El racismo es una forma más de discriminación y por lo tanto deberíamos hacerle frente. Desde la educación es posible reducirlo y para ello deberíamos ser críticas/os con nosotras/os mismas/os, con el currículum escolar, con los recursos, con las conductas, etc.

Un recurso muy utilizado en educación infantil es el cuento. Mediante la literatura infantil se puede trabajar mucho, pero también habría que revisar lo que reflejamos con ello. En la primera parte de este trabajo, en el marco teórico, se explicarán los detalles de esta discriminación y su efecto, relacionándola también con los cuentos. Después, en la metodología, se mostrará una tabla para analizar los cuentos. A continuación, en la parte del análisis, se analizarán seis libros utilizando la misma tabla, para más adelante exponer las conclusiones de los análisis realizados. Estas conclusiones, aparecerán en forma de consejos para llevar a cabo en la biblioteca del colegio o de la clase, de modo que esta sea diversa y antirracista. Para terminar, se explicarán los límites y las propuestas de mejora de éste trabajo.

SUMMARY

We should set out as teachers (and as part of society), up to what point we are legitimizing discrimination and in which way. Racism is another way of discrimination, and hence we should fight it. From education, it is possible to cut it down. To achieve it, we must be critical with ourselves, the school curriculum, resources, behaviors, etc.

The tale is a very used resource in education. By using children's literature it is possible to do plenty of work, but we should also check what we transmit with that. In the first part of this work, the theoretical frame, it is explained the details of this kind of discrimination and it's effects, connecting it with tales as well. Then, in the methodology, a board to analyze tales is displayed. Next, in the analysis part, six different tales are analyzed using that board. Later, the conclusions show some advice to make the school or the classroom library diverse and anti-racist. Finally, this work's limits and improvement proposals are expounded.

AURKIBIDEA

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA	5
MARKO TEORIKOA	6
Arrazakeria	6
Aurreiritziak eta estereotipoak	8
Kultura(k)	11
Matrize soziokulturala, identitatea eta identifikazioak	13
Arrazakeria irakasleari lotuta:	16
<i>Ikaste porrota</i>	16
<i>Autoestimu galera</i>	17
Kulturartekotasuna eta liburutegia	18
METODOA	22
Ikerketaren galderak	22
Lagina	22
Lagina hautatzeko irizpideak	23
Analisirako kategoriak	23
Prozedura	24
ANALISIA	25
ONDORIOAK	28
Zer ekidin behar da eskolan liburutegia eratzen denean?	28
<i>Liburutegiaren protagonista gehienak txuriak izatea, eta pertsonaien artean aniztasun eza egotea</i>	28
<i>Xehetasun etniko eta pertsonal ezberdinen adierazpen eta inklusio eza</i>	30
<i>Estereotipoak islatzea</i>	31
<i>Ikuspegi etnozentrikoa</i>	32
<i>Hierarkiaren isla</i>	33
<i>Hizkuntza arrazista, xenofoboa, diskriminatzailea, klasista, gerontofobikoa...</i>	33
<i>Kulturen errealitatea desitxuratzea</i>	34
<i>Hizkuntzak gutxiatea</i>	35
Zer ezaugarri izan behar ditu ikastetxeko liburutegiak	35
<i>Jende anitza egunerokotasuneko ekintzak egiten</i>	36
<i>Abaniko zabal bat eskaintzea estereotipoak apurtuz</i>	36
<i>Etnia, jatorri, genero... ezberdinetako erreferenteen inguruko ipuinak erabiltzea</i>	36
<i>Ezaugarri kultural anitzak erakustea</i>	37
<i>Talde sozial ezberdinei ahotsa ematea</i>	38

<i>Arrazakeria, xenofobia, diskriminazioa... zuzenean lantzen dituzten ipuinak.</i>	38
MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	39
BIBLIOGRAFIA	41
ERANSKINAK	43

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Haur Hezkuntzako graduako laugarren mailara iritsita, Gradu Amaierako Lana burutzeko garaia ailegatu zen. Azken ikasturte honetan, minorra erabakitzeko aukera izan dugu, eta nik kulturartekotasuneko minorra aukeratu izan dut. Bertan landutako kontu ezberdinak ikusita, eta egindako lan konkretu baten ondorioz, kulturartekotasunarekin zerikusia zuen gai bat erabakitzea pentsatu nuen. Haur Hezkuntzan oso erabilia den baliabide bat ipuina da, eta nire buruari galdetu nion ea nola erabil genezakeen baliabide hau bazterkeriari aurre egiteko. Arrazakeria eta kulturantzatasuna gaur egun pil-pilean dagoen gai bat da, eta baita garrantzi handia duena ere. Irakasle on artean ez dago honen inguruko prestakuntza gehiegirik, izan ere minorra hautazkoa da, eta prestakuntza hau irakasle guztiei ez ailegatzeko kezagarria iruditzen zait. Hori dela eta, saiatu naiz balioa izan dezakeen lan bat burutzen, hezkuntzarako erabilgarria izango dena.

Nire asmoa lan honekin, arrazakeria eta kulturartekotasunaren trataera hezkuntzarekin zerikusia duela adierazi eta honi aurre egiteko erreminta bat proposatzea izan da. Lan honetan, liburutegia osatzean kulturartekotasuna sustatzeko eta arrazakeriaren aurkako ikuspegitik eratzeko hainbat aholku aurkeztu nahi izan dira. Hauek sei libururen analisisen ondorioak dira. Esan beharra dago, nire asmoa liburu gehiago analizatzea zela, baina alarma egoerak mugatu egin dit aukera hori.

Bestalde, komentatu beharra daukat, arrazakeria diskriminazio modu bat gehiago dela, eta ez bakarra. Lan hau burutzeko gai honetan zentratu naiz, eta beharbada lan honetan agertzen diren parametroekin beste gai batzuei ere aurre egitea posible litzateke, baina ez dugu ahaztu behar hau ez dela arazo sozial bakarra ezta garrantzitsuena ere. Arazo sozial ezberdinei garrantzia ematea beharrezkoa da, eta baita liburutegian eta hezkuntzan txertatzea ere. Hortaz, matxismoa, transfobia, homofobia, kapazitismoa eta bestelako diskriminazio motak badaudela eta garrantzi berdina dutela kontuan hartu beharra dago. Eskatzen da jakintzat jotzea emakumeen, transgeneroen, aniztasun funtzionala duten eta bestelako talde sozialen parte hartzea eta inklusioa lan honetan zehar, hala nola, ipuinen idazle moduan.

MARKO TEORIKOA

Arrazakeria

Nortzuk gara “Gu”? Nortzuk dira “Besteak”? Ba al dago etnian oinarritutako “Gu” eta “Beste” horien arteko ezberdinketarik? Atxikitzen zaizkie zuzenean ezaugarri batzuk etnia ezberdinetako kideei? Kwame Anthony Appiahk (1990), filosofo angloghanesak arrazakeriaren inguruko hausnarketa eskaintzen du. Nola azalduko genieke beste planeta batetik datozeinei arrazakeria zer den? Arrazakeria edonon eta edonoiz ikus daiteke, baina gutxi pentsatzen da zer den eta zer dagoen oker honen inguruan. Gainera, arrazakeriaren aurka gauden pertsona gehienok jokaera arrazistak izan ditzakegu. Ideologikoki arrazakeria horren aurka gauden arren, jokaerek ez dute zertan bat etorri gure diskurtsoarekin.

Arrazakeriaren kontra egin nahi baldin bada, aurka egin beharko diogu modu arrazional batean. Horretarako, arrazakeria honen inguruan dauden doktrina ezberdinak ezagutu eta ulertu behar dira, eta Appiah saiatzen da argi aurkezten. Hiru doktrina ezberdin azaltzen ditu: arrazialismoa (*Racism*), berezko arrazakeria eta arrazakeria estrinsekoa. Arrazialismoaren inguruan dio, gizakiok baditugula heredagarriak diren ezaugarriak, gure espezieko kideek dituztenak, etnia ezberdinez osatutako taldeetan banatzea ahalbidetzen digutenak. Modu batean, talde hauetako kideek hazpegi eta joera batzuk konpartitzen dituzte, beste etnia batzuekin konpartitzen ez dituztenak. Hau ez da derrigor arriskutsua izan beharrik, baina bai eraman gaitzake arrazakeria motaren batera. Ezaugarri hauek, modu arrazistan, mami arrazial bat osatzen dute. Ezaugarri fisiko komun hauetan sailkapen informalak egiten dira, eta honen aburuz, pertsonak ezberdin tratatuak izaten dira beren etnian oinarrituta. Hau da, etnia identitate konkretu batekin zuzenki lotua izaten da. Adibide moduan, hezkuntza arloan espektatibak ezberdinak izaten dira ijito batekiko edo kaukasoar batekiko. Arrazakeria hau pertsona askoren sufrimenduaren oinarri izan da, eta ikuspegi moral gaitzesgarri askoren iturri.

Berezko arrazakeria, pertsona batzuk beren etnian oinarrituta beste batzuk baino hobekien diren sinesmena da, etnia bakoitzak bere estatus propioa duela pentsatzen delako. Sinesmen hau ezjakintasunetik etor daiteke. Pertsona kaukasoar baten inguruko pertsona guztiak kaukasoarrak izan badira beti, ez badu beste etnia batzuetako pertsonekin erlaziorik izan, eta komunikabideetatik, familiarik, eta abarretik jaso izan badu etnia batzuk beste batzuen gaitetik daudela, sinetsi egingo du. Honi, esperientziaren ondorioz buelta ematea posible izango litzateke. Arrazakeri estrinsekoa

berriz, zintzoa ez den arrazakeria intrinseko bat izan liteke. Informazioa izan arren, etnia ezberdinetako pertsonekin erlazionatu arren, jarraitzen dute pentsatzen etnia batzuk beste batzuen gainetik daudela. Berez, sinesmen horiek suntsitzen dituzten ebidentziak izanik -beltzak ez dira zertan lapurrak izan, edo judutar bat ez da zertan diruzale izan- haien ikuspegi arrazista hori desagertu beharko litzateke, baina ez denean gertatzen, dio gaitasun kognitiboaren falta dagoela.

Honen aurrean, azaldu beharra dago aporofobiaren kontua. Izan ere ezin dugu arrazakeriaren inguruan hitz egin aporofobiaren inguruan hitz egin barik. Ezjakintasuna, Appiahk dioen moduan, arrazakeriaren kausa bat izan daiteke, edo ez. Askotan jotzen da ezjakintasunari errua leporatzera, baina kasualitatez, arrazakeria pobreenen gainean erortzen da gehienbat. Appiahk berak dio, jakintasanak ez duela beti arrazakeriaren aurrean funtzionatzen. Adela Cortinak (1997) azaltzen du gure mundu garatuan, kirolariak, artistak eta, orokorrean, famatuak miretsi egiten direla beren jatorria edo etnia edozein dela ere. Arrazakeria arazo sozial handienetarikoa dela ziurtatzeko ahaleginak egin dira, baina handiena, aldiz, aporofobia da, txiroarekiko, behartsuarekiko edota ahularekiko gorrotoa. Ez dira besterik gabe etnia edo jatorri ezberdinak dutenak gorrotoa pairatzen dutenak, baizik eta pobreak direnak. Esan daiteke eskutik datozen bi terminoak direla, eta batak bestea indartu egiten duela.

Gehientzat, arrazakeriaren ideia ez da egoten diskurtsoari hain lotuta. Van Dijkek (1993) dio, askotan, arrazakeria ideologia batera murrizten dela, baina berak ulertzen duela menpekotasunean oinarritutako sistema sozial konplexu baten moduan, etnikoki oinarrituta dagoena eta ondorioz ekitate falta dakarrena. Ohiko lotura batzuk diskriminazioa, aurreiritziak, esklabotza, apartheid eta bestelako kontzeptuak izaten dira, etnien oinarritutako hierarkia, dominazioaren eta ezberdintasun sozialaren ondorio direnak. Baina diskurtsoak rol handia hartzen du arrazakeriaren erreprodukzioan. Van Dijkek azaltzen du arrazakeriaren sistema, subsistema sozial batez eta beste kognitibo batez dagoela konposatuta. Subsistema soziala, maila lokalean diskriminatzen dituzten praktika sozialez, eta maila globalean talde menderatzaileen, instituzioen eta erakundeen partez eragindako botere erlazioez konposatuta dago. Honen aburuz, diskurtsoa izan daiteke diskriminaziorako eragin handiko praktika mota bat, eta gizartean botere handiagoa duten taldeak, gizartean hitza duten elite sinboliko horiek eta beren erakundeak, diskurtsoaren bidez eragiten duten botere abusuaren eta mendekotasunaren adibideak dira.

Bigarren sistema, arrazakeria kognitiboa da. Talde eta instituzio menderatzaileen praktika diskriminatorioak eguneroko arrazakeriaren adibide nabarmena diren bitartean, praktika hauek oinarri mentala daukate. Hauek etnien arteko ekitaldi eta interakzioen ereduetan dautza, aurreiritzietan eta ideologia arrazistekin elkarlotzen direnak. Honek ez du esan nahi praktika diskriminatorio hauek beti apropos burutuak izaten direnik, baina bai errepresentazio mental hauek sozialki konpartituak izaten direla, eta modu negatiboan bideratzen gaituzte “Gu” eta “besteek” ideia horietara. Dimentsio kognitibo honetan, diskurtsoak rol garrantzitsua dauka, aurreiritziak eta ideologia etnikoak ez baitira berezkoak, eta ez dira espontaneoki interakzio etnikoen bidez garatzen. Hauek ikasi egiten dira, eta hau komunikazioaren bidez transmititzen da (elkarrizketak, testuak, ipuinak, iragarkiak, irudiak...). Modu berean, errepresentazio mental arrazista hauek espresatu, defendatu, definitu eta legitimatu egiten dira diskurtsoaren bidez, eta, hortaz, talde menderatzailean erreproduzitu eta konpartitu daitezke. Modu honetan gizartean arrazakeria ikasia izaten da.

Aurreiritziak eta estereotipoak

Aurreiritziak Allporten (1979) esanetan, “talde baten kide den pertsona batekiko, talde horren kide izateagatik, izaten dugun iritzi negatibo bat da”, baina Margarita del Olmo (2005) definizio honekin ez dator guztiz bat, aurreiritzi hauek positiboak ere izan daitezkeela defendatzen duelako. Hortaz, Aierdiren (2014) definizioa egokiagoa izan liteke: *“Pertsona edo talde batek ezagutzen ez duen zerbaiti edo norbaiti/talde bati buruz duen iritzi bat da, gehienetan negatiboa, ezjakintasunetik eratorria”*. Margarita del Olmok azaltzen du, aurreiritzi hitzak berak dioten moduan, aldezturik daukagun iritzi bat dela, eta honek abantailak eta desabantailak izan ditzake. Ideia hau beste pertsonengandik bereganatua izan da, ez dena esperientzia pertsonal batean oinarritzen. Besteek transmititutako ideia bat onartzen dugu haiengan konfiantza dugunean, edota bere autoritateak gutxieneko konfiantza transmititzen digunean, guk geuk esperimendatzeko beharra izan gabe. Aierdik dio aurreiritziak gizartean oso orokortuak egoten direla eta horregatik oso erraz bereganatzen direla. Pertsona edo taldearen bazterketa eragiten dute, eta ez dira iritzi soilak, epaiketa balioa hartzen dute. Adibide moduan etorkinek lana kentzen diguten ideia egongo litzateke.

Kahneman eta Tverskyk (1982) zalantzaren aurrean erabakien eta iritzi sozial hauek eragiten duten erroka kognitiboa ulertzen lagundu dezakete. Bi aditu hauek, beren ikerketa, erabakiak hartzeko eta epaiketak egiteko gizakiaren arrazionaltasunaren

mugak aztertzen zentratu zuten. Honen bidez demostratu zuten gizakiok ez ditugula gure estimazio probabilistikoetan sistema normatiborik erabiltzen, horren orde zereginen konplexutasuna sinplifikatzen duten heuristiko mugatueta oinarritzen garel. Lehenak, *Errepresentazioaren* heuristikoak, azaltzen du probabilitatezko epaiketak egiten ditugula, informazio konkretu bat ereduarekin duen antzekotasunetan oinarriturik, probabilitate errealetan oinarritu orde. Honek eragin ditzake aurreiritzi sozial batzuk, jokaera batzuk justifikatzeko erabil daitezkeenak. Adibidez, talde sozial baten kide den pertsona baten jokaera epaitzen dugunean, estereotipoetan oinarritu egiten gara, probabilitate datu objektibo errealak alde batera utziz.

Bigarrena, *Irisgarritasunaren* heuristikoa, gertaera baten probabilitatea, adibideak gogoratzeko erraztasunaren arabera balioztatzean datza. Honek puntu bateraino justifikazioa badu, gertakizun ohikoenak errazen memorizatzen eta gogoratzen direnak direlako. Arazoa da erraztasun handiagoarekin gogoratzen dugun hori ez dela beti adierazgarriena, eta askotan gogoratzen ditugun horiek ez dute zerikusirik gertakizunen maiztasunarekin, eta bai, adibidez, alderdi emozionalarekin. Ondorioz, irisgarriena ez da beti gertagarriena. Hirugarrena, *ainguraketaren* heuristikoa da. Hau, zalantza sorrarazten duten datuen inguruan epaiketak egiten direnean erabiltzen da. Anbiguitasuna murrizten da abiapuntu bat erreferente moduan hartuta, eta honetan oinarritzen gara ondorioak ateratzeko. Arazoa izan daiteke abiapuntu hori okerra bada, edo egia izatekotan doikuntza okerra izatea. Ondorioz, arrazoiketa heuristikoa askotan egoki funtzionatu dezakeen arren, askotan ere erabakiak oker hartzera eta epaiketetara eraman gaitzake, gure ikuspuntu pertsonalean oinarrituta egon daitekeelako.

Estereotipoak, aldiz, Lovelacen (1995) arabera *“Talde jakin baten ezaugarri buruzko aurrez burututako ideia bat da, sinplifikazio bat, gizarteak partekatua. Estereotipoak dira aurreiritzien oinarria eta oztopatzen dute pertsonak gizabanakotzat hartzea, bakarrik antzematen baita kidea den taldea, eta ondorioz aurrez erabakitako ezaugarri zehatz batzuen arabera epaitzen da”*. Aierdik dio, taldeari esleitzen zaizkion ezaugarrien aukeraketa interesatua dela eta errealitatea distortsionatzen du. Orokorrean, estereotipoak sortzen dira taldeari buruzko ezjakintasuna dagoenean, eta hura ezagutzeko edo aztertzeko borondaterik ez dagoenean. Honen adibide bat izango litzateke txinatarrak matematiketan azkarragoak diren ideia.

Dena den, jotzen da arrazakeriaren eta estereotipo eta aurreiritzien kausa ezjakintasunari leporatzera, baina beharbada identitatearekin eta alteritatearekin (“Gu eta besteak”) izan lezake lotura estuagoa. Identitatea, pertsona edo talde bakoitza den bezala egiten duen ezaugarrien multzoa da, Alfonso García Martínezen (2008) hitzetan oinarrituta, gizaki bakoitzak bere burua antzemateko gaitasuna da, gizaki bakar moduan existitzeko ahalmena ematen digun hori eta, aldi berean, besteekin erlazionatzen gaituena, talde ezberdinetako partaide izatea ahalbidetzen diguna. Hau da, identitateari esker munduaren ikuskera bat daukagu, kosmobisioa izena duena, bizitza ulertzeko modu bat. Identitate hau, dinamikoa, soziala, bakarra, multidimentsionala, konplexua eta bukatugabea da.

Penna (1977) bi ikuspegietatik abiatzen da. Lehena identitatea soziala, irudimenezkoa eta irudikatua dela, identitatea zerizan edo errealitate sakon batetik eratorria izan ordez. Hala eta guztiz ere, identitatea irudikapen imajinarioa izateak, ez du esan nahi errealitatean oinarritua ez dagoenik. Esan nahi duena da, ez dela bere islapena edo kopia, besterik gabe. Bigarrena, estereotipoa ere, soziala, imajinarioa eta eratua dela ulertu behar da, eta murrizketa izatea du ezaugarri, noizbehinka simulakroa. Modu honetan, simulakroa alderantzizko identitatea izan daiteke, talde batek onartzen ez duena, baina “beste” batek esleitu diona. Mesaren (d/g) aburuz, hegoaldeko irudi estereotipatuak, mendebaldea gainetik ipintzen dituztenak eta historiaren ikuspegi etnozentrikoan oinarritzen direnak, jokaera arrazistak legitimatu egiten dituzte. Estereotipo sozialei ematen zaien erantzunak aldatu egiten dira talde sozialen arabera, eta, beste alderdi batzuekin batera, botere harremanen eta egitura sozialen arabera dira. Aurreiritzi eta estereotipoek talde horrekiko ezkortasuna sustatzen dute, eta intrinsekoki elkartuta dauden hiru manifestazioetan itzultzen da: diskriminazioa, xenofobia eta arrazakeria.

Baina zein da estereotipoen eta aurreiritzien erabileraren arazoa? Del Olmok azaltzen du, ez direla derrigor kaltegarriak izan beharrik, norbaitek transmititzen digun aurreiritzi batek lagun diezaguke gure ingurua ezagutzen guk geuk bizi gabe. Arazoa dator modu desegokian erabiltzen ditugunean. Hauek oso ideia sinpleak izaten dira, informazio askoz konplexuagoa beharko genukeen egoeretan. Honek dakar bi arazo: lehena beren sinpletzea izango litzateke, erabiltzen ditugu talde bateko pertsona guztiei ezaugarri berak aplikatuz, eta modu honetan irudi desenfokatu bat islatzen digute, pertsona bakoitza ezberdintzea eta beren ezaugarri indibidualak ikustea eragozten diguna. Honela, ideia sinple eta orokorrak jokaera konkretuei aplikatzen zaizkie.


Bigarrena, beren aldaketarekiko erresistentzia da. Behin jaso ditugula, oso zaila da haietatik aldentzea. Aierdik dioen bezala, hain sinpleak dira, ezen oso erraz jasotzen baititugu, baina zailak dira itxuraldatzen. Aurreiritziek nahiz estereotipoek ezagutzen ez dugun zerbaiten inguruan ideia sinpletua eskaintzen digute, eta esperientziarik izan gabe jarraitzekotan eta horien inguruan ez hausnartzekotan, ez ditugu aldatuko.

Kultura(k)

Itxuragatik, askotan kultura bat edo beste bat inposatzen diegu pertsona ezberdinei. Eskoletan, aniztasuna dago, baina, askotan aniztasuna zuzenki elkarlotzen dugu etnia edota jatorri ezberdinetako pertsonak egotearekin. Baina zer da kultura bat? Non hasi eta bukatzen da? Kulturen artean zeintzuk dira mugak? Existitzen al dira muga horiek? Ainhoa Ezeizak eta Javier Encinak (2018) kultura eta kulturen inguruan diotenaren arabera, kultura hitzaren inguruan nahaste handia dago, askotariko gizarte-errealitateak islatzeko erabiltzen delako. Maiz adierazten da gaur egungo ikasgeletan “kulturaniztasun” handia dagoela, normalean jatorri segregazioa ezkutatzeko. Baina egia da, testuinguru guztiak kulturanitzak direla, eta hori konkretuki jatorri geografikoko aniztasuna deitu beharko genioke. Gela bat ez da inoiz izan homogenea, eta etnia, hizkuntza edota erlijio ezberdintasuna aniztasuntzat hartzen baditugu, agian azaleko eta azalaren desberdintasunak ezkutaekin eta identifikatzen errazagoak direlako izan daiteke. Gainera, argi izan behar dugu pertsona guztiak garelako etnikoak.

Pierre Bourdieuk (1998) honen inguruan dio kulturan pentsatzen dugunean, jantziak, abestiak, hizkuntza... bezalako ezaugarriak etortzen zaizkigula burura, baina Brake eta kideen (1995) *Izeberg kulturalaren* ageriko partea besterik ez da hori, eta kontuan hartzen ez ditugun ezaugarri asko eta asko daude urperatuta. Hala nola, kooperazioa, konpetizioa, ahots bolumena, laguntasuna, sozializatzeko modua, edertasunaren kontzeptua, eta abar. Eta ezaugarri hauek guztiak soilik desberdinak al dira lurraldearen arabera?

Fig. 1: The iceberg concept of culture



1. Irudia. Izeberg kulturala. Iturria: www.flickr.com

Amelia Barquin (2015) ere, honekin bat dator, eta dio kulturek ez dutela muga finkorik, ez direla puntu batean hasi eta puntu batean bukatzen. Kultura berdineko pertsonen, ezaugarri idiosinkratikoak konpartitu ditzaketen arren, ez zaie zuzenean egotzi behar, pertsona bakoitza ezberdina baita, eta ezaugarri kultural batzuk izan ditzake ala ez. Gainera, Bourdieuk dionaren antzera, jotzen da asko alderdi folklorikora, kultura bakoitzaren gainazaleko ezaugarriei garrantzi handiagoa emanez, hala nola musika, dantzak, janariak eta bestelako elementuak, *Izeberg kultural* horren ageriko partean kokatzen direnak. Baina kontua da, agerikoak ez diren ezaugarri horiek garrantzi handiagoa izan dezaketela.

Irakasleak garen edo izango garen heinean, ulertu behar da hurrek dakartzaten kulturen alderdia eskolan. Kulturartekotasuna ez da folklorismoarekin konfunditu behar. Beste kulturak ez baditugu ezagutzen eta jorratzen saiatzen baldin bagara, seguruena testuinguruan jarri gabeko estereotipoetan erortzea izango dela. Hau ekiditeko, gure buruari atxikitu diezaiokegu modu berdinean. Hau da, gu Alemaniara bagoaz, eta Euskal Herritik gatzela esaten badugu, atxikitu ahal dizkiguten ezaugarriek ez dute zergatik gure buruarekin bat etorri behar, hala nola euskal dantzak dantzatzea, irrintzia egiten jakitea, txistua edo trikitixa jotzea, edota kirol ruralak praktikatzea (edo agian bai). Colectivo Amanik (1996) eta Besaluk (2002) dioten moduan, kultura bereko partaide guztiek ez dituzte ezaugarri kultural berak konpartitu beharrik, ezta modu berean ere, eta gainera gogora dezagun kultura ez dela estatikoa, eta pertsonak aldaketei moldatu egiten direla, testuinguru sozial berriari, eta bertako ezaugarriak bereganatu egiten dituztela.

Bourdieu (1998) honen inguruan zioen jatorri sozialak eta hezkuntzak baldintzatuta dagoela, eta biek pertsona baten kapital kulturalari egiten dizkiotela ekarpenak. Autore honentzat, kultura bereganatu egiten da, eta bereganatzeko moduan datza planteamendua. Pertsona bat, modu naturalean ari da kulturarekin ohitzen bere haurtzaroan, gizarte-jatorriaren bidez, eta gero, eskola-kapitalari esker. Esan daiteke kultura eskuratzeko lehen modu hori garbiagoa dela bizitzan geroago lortzen dena baino (Podestá, 2006).

Matrize soziokulturala, identitatea eta identifikazioak

Ezeiza eta Encinak (2018) Matrize soziokulturalaren ikuspegia azaltzen dute. Txikitatik barneratzen ditugun ezaugarri ezberdinek, arrazoi ezberdinengatik, gure kosmobisioa eratzen dute, mundua nola ikusi eta interpretatzen dugun markatuz. Ezaugarri horiek generoan, etniam, klase soziala eta lan kulturaren eta adinean banatzen dituzte. Kosmobisio hau, pertsonala den arren, sozialki modelatuta egoten da. Honezkerok, mundu ikuskera konpartitu dezakegu adinkideekin, genero kideekin eta abar, baina ez guztiz, gure baitako beste alderdi batzuk ere hartzen baitute parte. Hori dena, modu nahasian, pertsona batzuegan une batzuetan alderdi batzuek indar handiagoa izango dute eta beste batzuegan beste alderdi batzuek, eta hau gertatzen da pertsona bakoitzak kosmobisioa edo mundu-ikuskerak propioa duelako. Hau pertsonala izan daitekeen arren, bitartekaritza kolektiboa du, eta kulturala garai etaleku zehatzean eratzen denez, jendearekin identifikatuta sentitzen laguntzen du.

Joera dago kultura lekuarekin lotzeko, eta hori neurri batean egia den arren, joera hori identitatea eratzearen ideiak bultzatzen du. Zer gara? galderari erantzun bakarra eman nahi zaio, baina adibidez euskaldunak izatearen atzetik ezberdintasun asko egoten dira, identitatea ez da horretara mugatzen. Matrize soziokulturalaren ikuspegitik, Gasteizen Haur Hezkuntza ikasten duen gasteiztar bat identifikatuago senti daiteke Marokon Haur Hezkuntza ikasten duen marokoar batekin, Gasteizen ekonomia ikasten duen gasteiztar batekin baino. Edo langile klaseko batek munduko beste puntan bizi den langile batekin bere klase ertaineko auzokidearekin baino. Gizakiok besteekin identifikatuak sentitzen garenaren arabera, gerturatuko gara horiengana eta ez kulturalki eurekin erlazio gehiago edo gutxiago izanaren ondorioz.

Maaloufek (1999) dio bakoitzaren identitatea bakarra dela. Identitate hori ez dago zatikatua, edo alderditan, identitatea bizitzan zehar jasotako elementu ezberdinen

eta bakoitzaren dosifikazio ezberdinaren produktu da. Pertsonak elementu bakoitza jasoko du neurri handiago edo txikiago batean, eta elementuak besteekin konpartituak izan daitezkeen arren, bakoitzaren “neurria” ezberdina izanik, elementu guztiak batuta identitate bakarra eta pertsonala sortzen dute, ez dena inoiz errepikatzen. Bizitzan zehar jasotzen ditugun estimuluak, gertakizunak, pertsonak, herrialdeak, hezkuntza eta abarrek parte hartzen dute gure identitatean. Hortaz, Marruekosetik etorritako 5 urteko haur bat, ez da erdi euskalduna erdi marokoarra izango, biak baizik, identitate berdinen barruan. Ondorioz, segurtasunez esan daiteke identitatea sortu egiten dela, ez gure barnean bilatu eta aurkitu, Pennaren ikuspegiaren antzera.

Honen harira, Garcíak (2008) dioen erara, bizitzako alderdi ezberdinek eragiten gaituzten heinean, esan daiteke identitate hau ez dela estatikoa, jaiotzen garenetik hiltzen garen arte aldatuz doa. Urte batetik bestera aldatu egiten gara, esperientzia berriak bizitzen ditugulako, jende ezberdinarekin erlazionatzen garelako, informazio berria eskuratzen dugulako eta abar. Gainera bere konplexutasuna dator interakzio hauen natura, intentsitatea, momentua eta iraupenaren arabera gure identitatean hein batean edo bestean eragiten dutelako. Hortaz, dinamikoa izateaz gain, soziala ere bada. Besteez ezberdintzen gaituen bitartean, besteekin ere batzen gaitu, eta haietaz ere ikasi egiten dugu. Talde ezberdinekin identifikatu egiten gara, elikaduraren partetik, etniaren partetik, generoaren partetik, eta bestelako elementuen partetik, matrize soziokulturalaren harira.

Gainera, Garcíaren hitzekin jarraituz, gizartean bizi garen heinean, identitatea sortzea prozesu interaktibo bat da. Pertsonak eta ingurumenek gure identitatean eragin gogorra daukate. Lehen esfera soziala, familia izaten da, non lehenengo identifikazioak, kultura transmisioa, arauak, interpretazioak, jokoak eta proiektzioak agertzen diren, eta aurrerantzean bere horizontea handituz doa. Geroago, identifikazio eredu berriak agertzen dira, hala nola, auzoa edo herria, eskola eta lagunak. Hauekin, konturatzen da ezberdintasunak egoten direla, talde ezberdinekiko parte hartzea barneratzen du, arauak konpartitzen ditu eta eredu berriak aurkitzen ditu esfera hauetan. Talde ezberdinek banakoa sozializatzen dute eta hau taldearekin identifikatzen da. Modu honetan bere identitate pertsonalaren oinarria finkatu egiten du, eta sozializazio prozesu honen bitartez pertsona bakoitzak modu etengabearen bere identitatea birdoitzen joango da, zuzenketak eta ekarpen berriak eginez.

Ondorioz, talde ezberdinetan integratuta egoten gara, komunitateak edo tribuak ere dei daitezkeenak. Balioak eta arauak konpartituak egoten dira, eta hauei esker taldea

eta bere kideak antzeman egiten dira eta identifikatuak izaten dira. Esleitzen zaizkien ezaugarri komunek talde identitatea sortzen dute eta Claude Abricen (1994) arabera errepresentazio sozialen lau funtzioetako bat da, funtzio kognitiboa, jokaeraren orientazioa eta ekintzen justifikazioarekin batera. Errepresentazio sozial hauek talde batek besteekiko definitzea eta modu positiboan edo negatiboan estimatzea ahalbidetzen dio. Identifikazioak egiten ditugu prototipo batekiko antzekotasuna eta asoziazioari esker. Modu honetan, *Nikeko* txandalez jantzitako gazteen talde bat potentzialki arriskutsua den talde baten moduan identifikatua izaten da, eta modu honetan estigmatizatuak (estereotipo eta aurreiritziekin lotuta). Dortierrentzat (2002), errepresentazio hauek egunero aurkitzen dira arlo anitzetan, eta arrazakeria arrunt hau gizartearen pentsamenduaren zaletasunik sakonena da. Gure errepresentazioek talde bati edo besteari hurbiltzeko lehenengo pausua ahalbidetuko dute, eta hauek onartuko gaituzte haien errepresentazioen bidez aitortzen bagaituzte, haien balio eta arau subjektiboen arabera. Hauek egonkortasuna duten arren, praktika sozialen bidez moldagarriak izan daitezke.

Modu honetan, kultura pertsonen jokabidearen determinatzaile egonkor moduan eta, aldi berean, heredagarria balitz bezala hartzen dute hainbatek. Hauentzat, identitate kulturala derrigor pertsonaren jatorrizko taldeari lotu egiten zaio, eta hortaz, erroak identitate kulturalaren funtsa dira. Errepresentazio ia genetiko honek identitatearen naturalizaziora bideratzen du, aldatzeko, eboluzionatzeko ezintasuna izango balu bezala, estatikoa balitz bezala, eta ondorioz banakoen eta taldeen “arrazializazioa” eragiten du. Bourdieuk (1980) azaltzen zuen, autoritate legitimoa duten taldeak beren buruko eta besteen definizioak inposatzeko posizioan daudela. Definizio identitarioen multzoak talde bakoitzaren estatusa finkatzeko eta sailkatzeko sistema moduan funtzionatzen du. Botere honek talde subalternoen “arrazializaziora” eta “etniziaziora” jotzen du, haien ezaugarri biologiko eta fenotipikoetan oinarrituta identitate bat finkatuta atxikitzen zaielako.

Honen inguruan, Amelia Barquinek (2009) azaltzen du immigranteen seme-alabentzat, identitatearen sorkuntza prozesu konplexua izaten dela, askotan besteek ez baitituzte bizi diren gizarteko kideatzat hartzen. Jatorri immigranteeko haurrentzat, estatutik kanpokoak izanik eta kulturalki ezberdinak jatorriz, lurraldearekin lotutako identitatearen eraketa zaila izaten da. Ohikoa da hurrei haien jatorriaren inguruan galdetzea, eta hurrek hemengoak direla erantzutean, beren ezaugarri fenotipikoak kaukasikoak ez badira, “Baina nongoa zara benetan?” galdera egitea. Bere ezaugarri fenotipikoak kanpotarra bezala etiketatzeko nahikoak dira. Bi kontu daude inplizituak hemen: lehena

da haur horiek ez direla hemengoak, eta bestea, zerbait egin behar dutela hemengoak izateko. Hortaz, zer egin behar dute haur horiek hemengoak izateko? Erantzuna da ezer ere ez. Haiek ez dute ezer egin behar hemengoak izateko, jada hemengoak direlako. Gainontzekoak dira begirada aldatu behar dutenak, haiek hemengoak diren arren, besteek kanpotartzat dituztelako. Honegatik, balio partekatuetan oinarritutako sozializazioa sustatzea, eskolaren lan garrantzitsu bat da, eta dibertsitatean elkar bizitzeko garrantzi handia izango du.

Identitatearen alderdi garrantzitsu bat lurraldearen partaide izatearen sentimendua da. Argi izan behar dugun zerbait da, haur guztiak hemengoak direla. Gurekin batera ari badira ikasten, hezten eta bizitzen, haur lokalak dira, eta hala kontsideratu beharko ditugu. Beren jatorria baloratzeaz gain, guk hemengoak kontsideratzea faktore garrantzitsu bat da haien identitatearen sorkuntzarako, eta baita haien autoestimurako ere, identitatearen Pigmalion efektu baten moduan. Prozesu hau ez baita guztiz haiena, ingurukoen begiradak asko egiten baitu. Inmaculada Garcíak (2007) dioen moduan, hurrek garatzen duten identitatea, ez da soilik haien bizitza pribatuan dituzten interakzioen araberakoa, eskolan eta bestelako instituzioetan dituztenak ere asko eragiten baitute. Barquinekin, ondorioz, bat dator, gizartearen gehiengo taldeko partaideek, gutxiengo horiek propioak bezala ez sentitzea ikuspegi moral gaitzesgarri bat dela baitio, eta ondorio garbiak ditu kohesio sozialean.

Azkenik, herentzia kultural batean lerrokatuta ez egoteko eskubidea dago, haiek borondatez eta askatasunez erabaki baino lehen. Eskolak egin behar duena da, etxetik ekartzen dituzten ezaugarri kultural propioak eta beren familiaren jatorrizko taldearen parte hartzea balioestea eta kontuan hartzea da. Modu honetan, beharrezkoa da praktikan azaleratzeko egoerak eskaini eta gelan prestigioa eta balioa ematea, aurrerago hitz egingo dugun moduan.

Arrazakeria irakasleari lotuta:

Ikaste porrota

Aurretik esan bezala, gure begiradak garrantzi handia du haurrengan, beren autoestimuan, identitatean, autokontzeptuan, eta *Pigmalion efektuak* dioen moduan, emaitzetan. Jordan (1988) bat dator ideia honekin, eta dio ikasle minoritarioek irakasleoi irudi esanguratsu moduan gaituztela, ondorioz beren autokontzeptua hein handi batean, gure pertzepzioaz baldintzatuta egonik. Irakasleone esku hartzea ezinbestekoa da, eta

alderdi honen inguruan zerbait garrantzitsu gogoratu beharko genuke: gizakiok gure identitatea sortzen dugu gure inguruan ditugun pertsonen begiradan eta elkarrekintzan oinarrituta, Carola eta Marcelo Suárez-Orozko (2003) esaten zuten moduan. Gure inguruko pertsonak zer pentsatzen duten guri buruz, gure buruarekiko dugun kontzepturako ezinbestekoa da. Hau da aurretik komentatu dudana "Pigmalion efektua", irakasleok ikasleekiko espero dugun errendimendua izaten bukatzen dutela azaltzen duen fenomeno da. Hau da, nik espektatiba handiak izaten baditut haur batekiko, bere emaitzetan efektua izango du. Sentitu egingo du nik berarengan sinisten dudala eta, ondorioz, bere buruarengan sinistu egingo du. Noski, berdina gertatzen da alderantzizko moduan: gure espektatibak baxuak badira haur edo talde batekiko, bere edo haien autokontzeptuan kalte egingo diogu, emaitzak okerragoak izanik. (Barquín, 2009). Castilok (2014) dio, mesfidantza transmititzen badugu, gerta daitekeena da erakutsitako konfiantzaren erara erantzutea, iragarpen autokonplutua deiturikoa.

Ondorioz, aurreiritzi eta estereotipoetan oinarritzen bagara haurren errendimendua aurreikusteko, emaitzak aurreiritzi horiekin bat etortzeko probabilitatea handiagoa izango da. Txinatar batengan gehiago sinisten badugu estereotipoa langileak direla delako, eta ijito batengan espektatiba baxuagoak izaten baditugu estereotipoa ikasketak goiz uzten dituztela delako, estereotipo hori erreproduzitzen jarraitzeko laguntzen arituko ginatke, haien emaitzak horrelakoak izaten laguntzen ariko ginatkeelako. Haurrak dakartzaten talentuak, gaitasunak, adimenak... identifikatzen jakin beharko genuke horiekin lan egiteko, eta espektatiba handiak erakutsi haur guztiengan, haien ahalmena dutela sentitu dezaten eta haien emaitzak ahalik eta hobereenak izan daitezten. Haien potentzialtasuna landu beharko dugu, haien alderik onena ateratzeko. Horretarako gure buruarekiko kritikoak izan behar gara, eta landu ditugun aurreiritzi eta estereotipoak ahal den heinean alderatzeko.

Autoestimua galera

Autoestimua eta identitatea eskutik datoz. Haur bati bere ezaugarri fenotipikoetan oinarrituta hemengoa dela zalantzan jartzen badiogu behin, agian ez dio garrantzirik emango, baina behin eta berriro gertatuko balitzaio, ondorio kaltegarriak izan ditzake bere identitatearen ezaugarri batengan edo batzuegan, eta autoestimua galera ekarri. Zer gertatuko litzateke bere etxeko kulturari garrantzirik ez bagenio emango? edo ama hizkuntzari? Zer gertatuko litzateke gelan izaten ditugun argazkiak aniztasun etnikorik islatuko ez balute? edo kontatzen ditugun ipuinetan lorpenak dituzten bakarrak

edo protagonista gehienak txuriak balira? Edo inork ez balu *Hiyaba* eramango? Edo kultura lokalean besterik ez badira oinarritzen? Edo estereotipoak islatuko balituzte?

Amelia Barquinek (2015) azaltzen du, haurren autoestimuan lagundu ahal izateko, dakartzaten ezaugarriak ezagutu, baloratu eta prestigioa eman beharko diegula. Pertsonak kulturen aurretik ipini behar ditugu beti, haiek dakartzaten ezaugarriak ezagutu eta baloratu behar ditugu. Ez dauka zentzurik haien kulturen inguruan hitz egitea, haiei espazioa eta denbora eman beharko zaie ekartzen duten hori azalertzeko. Ondorioz, egin behar dena ez da kulturak irakastea, baizik eta haur bakoitzaren ezaugarri kulturalak kontuan hartu eta estimatzea. Familiaren bizitza eta jatorriko taldearena partekatua izateko aukera ematea eta ingurukoengandik modu positiboan hartua izatea, eta ez ahaztu gure kultura ere haiena dela, gizarte honetako partaide baitira.

Antzekoa egin beharko genuke etxeko hizkuntzekin. Kulturaren eta identitatearen alderdi garrantzitsu bat hizkuntza da, eta honi garrantzi handia eman beharko diogu, eta are gehiago hizkuntza gutxituak badira. Coelhok, Ollerek eta Serrak (2013) azaltzen duten moduan, guk daukagun jarrera positiboa haurrek dakartzaten hizkuntzekiko, animatu ditzake hori(ek) erabiltzen jarraitzera, eskolako hizkuntza ikasten duten bitartean. Kulturarekin gertatzen den modu berean, ama hizkuntzak ez dira eskolan irakatsi behar, hori familiaren lana izango da, baina bai prestigioa eman eta baloratzea. Modu honetan gainera, beren ama hizkuntza modu solidoan ikasten badute, erraztasun handiagoa izango dute gainontzeko hizkuntzak ikasteko, transferentzia deitutako fenomenoaren ondorioz. Eskolako paretetan hizkuntza ezberdinak agertu daitezela, gelako liburutegian ipuin elebidunak, alfabeto ezberdinekin eta abar. Hizkuntza bat ikasteko, praktikatzeko aukera izatea eta motibazioa izatea dira bi faktore garrantzitsuenak, eta gure lana da motibazio hori sustatzea, hizkuntza horrekiko duten estimuan laguntzea, eta ondorioz, baita beren autoestimuan ere. Horretarako ezinbestekoa da gelan dauden hizkuntzak ezagutzea, eta norbait berri baldin badator eskolara, bere jatorria behatu eta zein hizkuntza minoritario dauden ezagutzea, haiei ikusarazteko guk ezagutzen eta baloratzen ditugula, honela prestigioa emanaz.

Kulturartekotasuna eta liburutegia

Iratxe Antonen (2016) aburuz, sozializazioaren bidez gizartearen parte hartzaileek balio, pautak kulturalak, beren ingurunearen ohitura eta jokaera moduak eta bestelakoak barneratu eta natural eta propio moduan identifikatzen dituzte. "A través de

la socialización una persona adopta elementos socioculturales de su medio y los integra a su propia personalidad” (Castillo et al, 2009). Hau guztia, bizi den gizarteari moldatzeko xedeaz. Antonek (2016) dioten moduan, bi sozializazio mota ezberdin daitezke, lehena printzipioz familiar dagokiona da, eta honen bidez arauak eta gaitasun sozialak barneratzen dira. Bigarrena familiaratik at dauden taldeei dagokie, hala nola eskolari, lagunei eta komunikabideei. Balio hauek eskolan, ahozko baliabideen, jolasen, irakasleen jokaeren bidez eta baita diskurtsoen bidez transmititu ohi dira. Dena den, familiak nahiz eskolak beste erreminta batez ere baliatu daitezke balioak transmititzeko, eta hori haur literatura da.

Colomerrek (2010) literaturak duen garrantzia azaltzen du eta dio, banakoaren sorkuntza prozesuan, hizkuntza eskuratzen eta narrazio formak ezberdintzen laguntzeaz gain, iruditeria kolektiboari sarrera eman eta munduaren errepresentazioa eskaintzen duela, belaunaldi berrientzako sozializaziorako erreminta bezala erabiltzen dena. Heztea izan zen, hain zuzen ere, haurrentzako liburuen sorkuntzaren xedea. Haurren arteko elkarrizketa eta kolektibitatea zabaltzen du, mundua nolakoa den edo nola izan litekeen adieraziz. Horregatik, haurrentzako literatura hezkuntza eragile moduan ulertua izan da beti. Honekin, Colomerrek haur literatura kulturen sarbide moduan ulertu eta haurrak horren partaide izatearen garrantzia nabarmentzen du. Modu honetan, adibidez, haurrei kultura eta gizarte ohituren arabera ondo edo gaizki dagoenaren inguruan hausnartzera bultzatuz, eta pertsonaien jarraitu edo ekidin daitezkeen jokatzeko moduak ikusi ahal izatea, hein batean erreferente ezberdinak eskainiz.

Hala ere, haur literatura sozializazio agente bat izan arren, bere xedea ez da haurrari nola jokatu behar duen esatea, baizik eta egoera ezberdinak eskaintzea bere errealitatea ulertzeko eta bere jokaerak baloratzeko bidea emanaz. Halaber, sozializazio agente bat izatea bere funtzioetako bat besterik ez da, izan ere literaturak dibertitzea ere bilatzen du, haurren interesa pizteko faktore hori izatea beharrezkoa baita. Haur literaturaren generoetatik xehetasun hori duen bat, argi eta garbi, ipuina da. Ipuinak faktore hezgarri saihestezin bat duen bitartean, izaera ludikoa ere dauka, hartzaileari plazerra sortuz. Konkretuki, ipuinak dibertitzeaz gain, pertsonen arteko erlazioen, rol sozialen eta sozialki onartuak dauden jokaeren estruktura mentalak eraikitzen laguntzen dio, bere identitatearen sorkuntzarako bizitzaren aldi garrantzitsuan dagoelarik.

Ipuinaren bidez gai asko eta asko landu ditzakegu, modu zuzenean edo zeharkakoan. Baina, kontuan izan behar dugu ipuin guztiek ez dutela balio berdina, eta

kontuz ibili behar gara bakoitzak islatu ditzakeen estereotipoekin, balioekin edota kolektibo batzuekiko ikuspegiarekin. Elisabeth Coelhok (2016) azaltzen du, ikasleek eskolan irakurtzen dituzten liburuek indartu egin ditzaketela kultura-estereotipoak, beste arloetako estereotipoekin batera. Material horretatik jaso dezakete genero-rolak, edertasuna, ondasuna eta heroitasuna gazteen eta etnia zurikoen ezaugarri fisikoekin lotuta daudela, matrize soziokulturalaren ezaugarriekin batera, beltzak oso gutxitan direla kontakizun batean agertzeko bezain garrantzitsuak eta, baldin badira, gaiztoarena eginez edo bazterreko rolak jokatuz agertzen direla. Txiroak maiz agertzen dira, baina ez rol nagusietan, non eta ez duten pobreziatik ihes egiten zorte onari edo magiari esker, edo haiek bakarrik egindako ahaleginei esker. Lerratze horiek gutxitan nahita bilatuak diren arren, eragin sakona izan dezakete ikasleen autoestimuan eta mundu-ikuskeran. Curriculum inklusiboa bultzatzeko, literatura erreminta ona izan daiteke, baina behatu behar dugu zer erabiltzen dugun. Literaturaren ikusmolde etnozentrikoak oso ikuspegi mugatua ematen die ikasleei literaturaz eta munduaz. Abaniko zabal bat eskaini behar dugu, Chimamanda Adichiek (2011) dioten moduan, istorio bakarra kontatzea ikuspuntu bakar batetik arrisku handia baita, errealitatea irudikatzen ez duten estereotipoak islatuz. Soilik historia bat edo haien artean antzekoak direnak ezagutzen baditugu, hoiek gezurra ez izan arren, ez digute errealitate oso bat adierazten.

Jurjo Torres Santomek (2008), eskolaren curriculumaren analisi bat egiten du, zein puntutaraino eskolako curriculumak idiosinkrasia ezberdinekin errespetua izaten duen aztertzeko. Azaltzen du eskola erakundeek produkzio eta erreproduktio diskriminatorioak islatzen dituzten elementu bat gehiago direla, eta hezteko kargua dutenez, gainontzeko erakundeek baino erresistentzia eta salaketa handiago bat izan beharko lukete bazterketa eragiten duten praktikekin. Testu-liburuetan oinarritu da gehienbat bere ikerketan, baina ipuinetan ere ager daitezke ondoko ezaugarriak:

-Segregazioa: Sexu, etnia, klase sozial eta gaitasunen aldetik.

-Bazterkeria: Kolektibo batzuk ultraestereotipatuak egoten dira. Ezberdinak balira bezala erakusten dira, eta desberdintasuna gehiago nabarmendu ahala bazterkeria handiagoa da. Exotifikatu egiten dira, eta gizartean presente dauden kulturak saihestu. Kolektibo batzuei ez zaie ahotsarik ematen, eta ematen zaienean estereotipoa indartzen da.

-Desitxuratzea: "Gu" horren mirespena eta "besteen" gutxiespena. Kolektibo batzuei ahotsa ematen zaienean, beren gutxiagotasuna azpimarratzeko izaten da.

-Paternalismoa: Ikuspegi hierarkikoen isla, kultura eta errealitate batzuen nagusitasuna beste batzuen gainetik. "Guk" "Besteei" laguntzen.

-Infantilizazioa: Informazio zientifikoa, historikoa, kulturala eta soziala irrealak balira bezala aurkeztean, fikziozko mundu baten parte balira bezala, eta gainera modu hutsal batez.

-Bitxikeria: Isildutako egoera sozialak gurekin zerikusirik izango ez balu bezala aurkeztuak izaten dira, urrun dauden egoerak bezala. Afrikako ikuskera pobreziarekin lotuta egoten da.

Beste alde batetik, Rafael Grasa (1988) dio, haurrentzako literaturak, talde sozial ezberdinen deskribapen eta irudi ezberdinak proposatu ditzaketela, eta hauen bidez ikuspegi etnozentriko edota arrazista sustatu daitekeela. Elementu etnozentriko eta arrazista hauek ipuinetan detektatzeko galdetegi bat eskaintzen du. Hauek dira atal batzuk:

-Protagonistak: Txuriak dira edo beste etnia batzuetakoak ere? Rol garrantzitsua dute edo txurien abenturen laguntzaile exotiko moduan agertzen dira? Jakintsuak, azkarrak, ausartak... dira? krudelak, koldarrak, maltzurak dira? Txurien eta gainontzeko etnien arteko konparaketak egiten dira? Nork du abantaila?

-Pertsonaien deskribapena: Pertsonai arrazializatuak beren giza duintasunaren arabera deskribatzen dira, edo estereotipoen bidez? Xehetasun pertsonalen bidez edo etnia estereotipoen bidez? Nor da erabakien burua? Azal koloreak deskripzioa eta akzioa baldintzatzen du?

-Ilustrazioak: Herrialde oso baten aberastasuna estereotipo batetara murrizten da? Ze jokaera irudikatzen dute? Talde ezberdinak estereotipatuak agertzen dira? Nortzuk jokatzen dute rol aktiboak?

-Lengoaia: Hitzak edo hizkera arrazistak nabaritzen dira? Nork hitz egiten du eta nork farfuilatzen du? nork jaten du eta nork irentsi? norbaitek edo talderen batek "azkenean" zerbait ikasi du? "besteak" basatiak dira? "gu" zibilizatuak? Beltza hitza gutxietsita dago? Hazpegi ezberdinak gutxietsita daude?

METODOA

Ikerketaren galderak

Lan honen kezka nagusia da eskolak zein zentzutan sustatzen duen ikuspegi etnozentrikoa eta ea arrazakeria nolabait legitimatzen ote den, oharkabean, erabiltzen ditugun materialen bitartez. Ondorengo ikerketa garatzeko, liburutegi publiko batean lan egiten ari naizela baliatu nahi izan dut, irakurgai gisa erabiltzen diren liburuak aztertzeko. Hauek dira ikerketa honetan aztertuko ditudan galderak:

- Ikuspuntu etnozentriko batetik lantzen ari gara?
- Arrazakeria legitimatu egiten dugu irakurtzeko liburuen bidez?
- Zer izan behar dugu kontutan hori ekiditeko?
- Nola lortu dezakegu kulturartekotasuneranzko pausoak ematea liburu eta ipuinen bidez?

Lagina

Liburu bakoitzaren fitxa taula batean dago txertatuta, autoretza, izenburua, argitalpen urtea, argitaletxea, hizkuntza, orrialde kopurua, irakurgai mota, gomendatutako adin tartea eta sintesia ipiniz. Liburu guztien lagina 1. eranskinean aurkitzen da, eta hemen adibide bat:

AUORETZA	Roald Dahl, Quentin Blake
IZENBURUA	Charlie y la Fábrica de chocolate
ARGITALPEN URTEA	1964
ARGITALETXEA	Alfaguara
HIZKUNTZA	Gaztelera
ORRIALDE-KOPURUA	200
IRAKURGAI-MOTA	Ipuina
GOMENDATUTAKO ADIN-TARTEA	8-tik aurrera
SINTESIA	Wonka txokolate-lantegiaren jabeak bost txartel ezkutatu ditu txokolatinetan. Txartel horiek lantegi miresgarri eta zoragarria bisitatzeko aukera ematen dute. Charlie, zorionez, txartel horietako bat aurkituko du. Ondoren, bere bitzta zeharo aldatuko da eta gauza bera gertatuko zaie bere gurasoei, bere bi aitonei eta bere bi amonei.

Lagina hautatzeko irizpideak

Liburu hauek eskuragarri daude Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean. Horretaz gain, interneteko beste plataforma batzuetatik eskuratu izan ditudan beste hainbat liburu ere erabili izan ditut.

Aipatu beharra dago, alarma egoera dela eta, ezin izan ditudala nahi bezain beste liburu eskuratu analisi gehiago txertatzeko, eta ez ditut eskura izan jada ikuskatu ditudan liburuak. Horren ondorioz, lagina pentsatuta neukana baino mugatuagoa izango da.

Analisirako kategoriak

Liburuak Jurjo Torresen (2008) eta Rafael Grasaren (1988) irizpideen arabera aztertu ditut. Nire analisirako, batez ere Jurjo Torresen segregazioa, bazterkeria, deskonexioa, desitxuratzea, psikologizazioa, paternalismoa eta infantilizazioa eta Rafael Grasaren, protagonistak, pertsonaiak, ilustrazioak eta lengoia xehetasunetan oinarritu naiz, bere irizpideak liburu ezberdinetan agertzen diren behatuz. Gainera Coelhok emandako azalpena kontuan izan dut. Horretaz gain, marko teorikoan zehar autore ezberdinek azaldutako gai ezberdinetan oinarritu naiz irizpide hauei laguntzeko. Horien artean identitatearen sorkuntza, identifikazioak, arrazakeria, estereotipoak, ezaugarri kulturalak eta identitarioen balioespena, Pigmalion efektua eta autoestimua bezalako gaiak atentzioa eskaintzearen inguruan izango dira. Honekin guztiarekin, liburutegian zer ekidin eta zer lortu beharko genukeen ondorioztatu nahi izan dut.

Analisirako irizpideak	Deskriptorea
Segregazioa	Etnia eta klase sozial ezberdinetako pertsonaiak agertzen dira elkarrekin? zer nolako rola du bakoitzak? nor da protagonista?
Protagonistak	Txuriak dira? Pertsonai arrazializatuak dira? Biak? Arrazializatuak direnak rol garrantzitsua dute edo txurien laguntzaile moduan agertzen dira? Konparazioak agertzen dira bi taldeen artean? Nork du abantaila?
Pertsonaiak	Pertsonai arrazializatuak beren giza duintasunaren arabera deskribatzen dira, edo estereotipoen bidez? Xehetasun pertsonalen bidez edo etnia estereotipoen bidez? Nor da erabakien burua?
Desitxuratzea	“Gu” eta “besteen” arteko aldea nabarmentzen da? kultura ezberdinen gutxiespena agertzen da?

Bazterkeria	Kolektibo ezberdinak ultraestereotipatuak agertzen dira? Ezberdinak eta exotikoak balira bezala? kolektibo hauei hitza ematen zaie? ematen zaienean estereotipoak eta arrazakeria indartzeko balio du? Gizartea mono-kulturala balitz bezala aurkezten da? kaukasikoak arrakastarekin lotzen dira? eta pertsonai arrazializatuak?
Paternalismoa	Hierarkia baten isla egiten da? "Guk" "besteei" laguntzen? Besteen lorpenak kaukasikoei esker dira? Txuriak salbatzaile moduan agertzen dira? Herrialde eta komunitate ezberdinen isla atzerapenarena da? irudikapen etnozentrikoa du?
Infantilizazioa	Informazio erreala fikziozkoa balitz bezala aurkezten da?
Bitxikeria	Herrialde eta kultura anitzak ezberdinak balira bezala aurkezten dira? Diren moduan aurkezten dira? estereotipoen bidez? isildutako egoerak gurekin zerikusirik izango ez balute bezala aurkezten dira?
Ilustrazioak	Herrialde oso baten aberastasuna estereotipo batetara murrizten da? Zer jokaera irudikatzen dute? Talde ezberdinak estereotipatuak agertzen dira? Nortzuk jokatzeko dituzte rol aktiboak?
Lengoaia	Hitzak edo hizkera arrazistak nabaritzen dira? Nork hitz egiten du eta nork farfullatzen du? nork jaten du eta nork irentsi? norbaitek edo talderen batek "azkenean" zerbait ikasi du? "besteak" basatiak dira? "gu" zibilizatuak? Beltza hitza gutxietsita dago? Hazpegi ezberdinak gutxietsita daude?
Kultura	Kultura hegemonikotik aldentzen diren xehetasunak agertzen dira? Familia eredu ezberdinak, hizkuntza ezberdinak, ikuspuntu ezberdinak, hizkera ezberdinak, erlijio ezberdinak... agertzen dira? nola daude irudikatuak? Kultura hegemonikoa nagusitzen da eta besteen gainetik jarri? Kulturak soilik alderdi ikusgarrienarekin irudikatzen dira?

Prozedura

Hau izan da analisia burutzeko prozedura:

- 1) Analizatu beharreko liburuak gain-begiratu, liburuen ideia orokorra hartzeko, irizpideak aplikatu aurretik.
- 2) Liburu bakoitzak banan-banan aztertu, zehaztutako irizpideen arabera, eta liburu bakoitzean dauden alderdi deigarrienak jaso
- 3) Analisisiko aurkikuntzak kontrastatu
- 4) Eskola-liburutegiak eratzeari begira egindako aurkikuntza nagusiak kontuan hartuta, gomendio-zerrenda bat eratu

ANALISIA

Burututako liburuen analisi guztiak 2. eranskinean agertuko dira, hemen bi adibide ezberdin txertatuko ditut:

Analisirako irizpideak	Deskriptorea- Charlie y la fábrica de chocolate
Segregazioa	Protagonista klase oso baxuko haur bat da, lau aitona-amona eta gurasoekin bizi dena. Kaukasikoak dira. Willy Wonka pertsonai arrakastatsu, kaukasikoa eta Europearra da, Txokolatezko fabrika garrantzitsu bat duena. Oompa-Loompak fabrika horren langileak dira, Wonkarentzat lan egiten dutenak txokolatearen truke, eta esklabotzarekin konparagarria izan daitekeena. Pigmeoen tribu oso bat da.
Protagonistak	Oompa-Loompak pertsonaia arrazializatuak dira, Pigmeoak hain zuzen ere. Protagonistak txuriak dira, eta hauek laguntzaile moduan agertzen dira, txuri arrakastatsuentzat lan eginez desabantaila egoera batean. Denak antzekoak dira haien artean eta oso dialogo eskasak dituzte, eta denak batera abesten agertzen dira, gainontzeko pertsonaiei gertatzen zaienaren inguruan.
Pertsonaiak	Pigmeoen deskribapena talde moduan egiten da, orokorrean. Ez da bakoitzaz hitz egiten. <i>“A los Oompa-Loompas les gusta...”</i> bezalako orokortzeak egiten dira. Willy Wonkaren irudia aldiz, bere lorpenen ingurukoa da, pertsona arrakastatsua da: <i>“Willy Wonka, el mayor inventor y fabricante de chocolate que ha existido”</i> . Charlieren inguruan ere, hitz positiboak agertzen dira, familiarekin konprometitua, alaia, umila... <i>“Adoraban al pequeño Charlie. El era la única alegría de su vida, y sus visitas nocturnas eran algo que esperaban ilusionados durante todo el día”</i>
Desitxuratzea	Oompa-Loompak oso ezberdinak eta exotikoak balira bezala aurkezten dira, eta haien kultura gutxietsita agertzen da. Pigmeoen kulturaren desitxuratzea egoten da, beren bizimodua ipuinean agertzen den moduan, errealitatearekin bat etorri gabe.
Bazterkeria	Pigmeoak estereotipatuak agertzen dira, beren bizimodua desitxuratuta egonik. Diote beren janari bakarra beldar nazkagarriak zirela, zuhaitzetan zituzten etxeetan bizi zirela, eta haien bizimodua penagarria zela Wonka agertu baino lehen. Zioten ere, Wonka ailegatzean Tribuaren burua hezur eta larru eginda zegoela (Afrikarekin lotutako estereotipoa). Aldiz, Wonka gizon arrakastatsua da, fabrika famatua duena.

Paternalismoa	<p>Wonkak azaltzen du, nola Pigmeoen bizimodua bera ailegatu baino lehen, penagarria zen, aurretik azaldu moduan. Azaltzen du nola berak aurkitu zituen, nola berak ekarri zituen fabrikara eta berari esker beren bizimodua hobetu egin zen. Pigmeoek ezin zituzten hainbeste gustuko zituzten kakao fruituak eskuratu noizean behin baino gehiagotan (Afrikan hazi arren), eta berak pila bat zituela bere fabrikan. Ez da komentatzen nondik ateratzen dituen fruituak Wonkak, izan ere ingalateratik ez dira eratorriak. Wonkaren irudia salbatzailearena da, eta Pigmeoak esker onekoak agertzen dira berarekin.</p> <p><i>-Yo mismo los descubrí. Yo mismo los traje de África</i></p> <p><i>-«escucha, si tú y toda tu gente venís conmigo a mi país y vivís en mi fábrica, podréis obtener todos los granos de cacao que queráis</i></p> <p><i>-El hombrecillo dio un brinco de alegría y arrojó su cuenco de orugas aplastadas por la ventana de la casa en el árbol. «¡Trato hecho!», gritó«¡Vámonos ya!»</i></p> <p>Klase sozialari dagokionez, Charlie eta bere familia pobreziatik irteten dira Wonkaren saria lortzeari esker.</p>
Infantilizazioa	<p>Pigmeoak, benetako etnia bat izan arren, ipuin honetan fikziozko pertsonaiak balira bezala aurkezten dira, fantasiako izakiak. Benetako pertsonak direla komentatzen den arren, islatzen dena fantasiarekin du lotura estuagoa, errealitatearekin baino. Egun osoan dantzatzen, kantatzen eta goxokiez eta txokolatez elikatzen.</p>
Bitxikeria	<p>Ez dira bakarrik exotikoak eta arraroak balira bezala aurkezten, baizik eta animaliekin edota objektuekin konparagarria den tratua ematen zaie.</p> <p><i>-¡Son pigmeos! ¡Importados directamente de África!</i></p> <p><i>-Los traje metidos en grandes cajones donde había practicado algunos agujeros y todos llegaron a salvo</i></p> <p><i>-¡Papá! ¡Quiero un Oompa-Loompa! ¡Quiero que me des un Oompa-Loompa!</i></p>
Ilustrazioak	<p>Maila sozioekonomikoa beharbada arropa ezberdinetan nabaritzen da. Wonkak esmokina darama, Charlie eta bere familia arropa zimelduak daramatzate. Oompa-Loompak aldiz, denak daude larru zati batekin jantzita, sorbalda batetik lotuta eta soineko moduan.</p>

Lengoaia	<p>Oompa-Loopak <i>pobre, hombrecillo, famélico...</i> hitzekin erlazionatzen dira. Horrek Wonkaren “lorpena” indartzen du:</p> <p><i>-Diminutos pigmeos</i></p> <p><i>-Wonka: Los encontré</i></p> <p><i>-estaban prácticamente muriéndose de hambre</i></p> <p><i>-El pobre hombrecillo, de aspecto famélico, estaba allí sentado intentando comerse un cuenco de orugas aplastadas sin vomitar.</i></p> <p><i>-Oompa-Loompas pasaban todas las horas del día trepando a los árboles</i></p> <p><i>-¡Pobres pequeños Oompa-Loompas!</i></p> <p><i>-El hombrecillo dio un brinco de alegría</i></p>
Kultura	<p>Beren hizkuntza ez da errala, asmatua baizik: <i>hablando no en español, por supuesto, sino en Oompa-Loompas.</i></p> <p>Orokorrean, janarien inguruan, etxebizitzaren inguruan, habitat-a, janzkera... komentatzen da, “<i>Aún siguen llevando la misma ropa que llevaban en la jungla. Insisten en ello. Los hombres, como podéis ver, sólo llevan pieles de ciervo. Las mujeres se cubren con hojas, y los niños van desnudos. Las mujeres se ponen hojas frescas todos los días...</i>” ez da kultura baten irudikapen erreala egiten.</p>

Analisirako irizpideak	Deskriptorea-Mila eta bere lagunak
Segregazioa	Milaren aita, ere beltza, haiekin jolasten da arratsalde osoan eta zaintzen ditu. Gero lagun baten bila amak datoz, bata Hiyaba darama eta bestea kaukasikoa da.
Protagonistak	Txuriak eta arrazializatuak dauden pertsonaiak daude, rol antzekoekin. Ez dira konparaziorik egiten etnien artean, ezta etniaren aipamenik egiten ere.
Pertsonaiak	Pertsonaiak giza duintasunaren arabera deskribatzen dira. Milak kontatzen du bere gurasoak dibortziaturik daudela eta noizbehinka etxez aldatzen dela. Ez daude estereotipatuak. Eskolara doaz, eta Milaren aitaren etxean askaria hartzen dute, jolasten dira arratsalde osoan eta bukatzean etxera doaz.
Desitxuratzea	Ez dago alteritatearen agerpenik. “gu” bat baino ez da nabaritzen.

Bazterkeria	Ez dago etnien artean bereizketarik edota hierarkiarik. Denek dute hitz egiteko aukera berdina. Dialogoak murrizak dira orokorrean, denak jolasten dira pozik munstroetara, ez dago gainetik dagoen inor, arrakasta edo porrota ez zaio inori lotzen. Arrakasta denek izaten dute ondo pasatzen dutelako elkarrekin. Ez da gizarte monokultural baten moduan irudikatzen, baina ez da bakoitzaren kultura irudikatzen bereziki. kulturartekotasuna nabaritzen da.
Paternalismoa	Ipuin honetan pertsonak daude, eta etnia bigarren mailako kontua da guztiz, ez zaio garrantzirik ematen. ez da hierarkiarik egoten.
Infantilizazioa	Egiten dutena egunerokotasuneko zerbait da. Haur asko identifikatu daitezke ipuinean gertatzen denarekin, izan ere eskola eta gero etxe batean jolasten duten hiru lagun dira.
Bitxikeria	Herrialde berekoak direla dirudi.
Ilustrazioak	Rol aktiboak dituzte guztiek.
Lengoaia	Ez
Kultura	Omarren amak Hiyaba darama, eta hortaz musulmana da. Gainontzekoen erlijioa ez da nabaria. Milaren gurasoak dibortziaturik daude. Aita da haurrak zaintzen dituena. Berdintasun egoeran daudela dirudi.

ONDORIOAK

Zer ekidin behar da eskolan liburutegia eratzen denean?

Liburuaren analisia burutu ostean, ondorioztatu daitezke gure liburutegia aniztasun etniko eta kulturalari arreta egokia eskaintzeko kontuan izan beharreko kontu ezberdin batzuk. Orokorrean gure liburutegiak ekidin beharreko xehetasunak hauek dira:

Liburutegiaren protagonista gehienak txuriak izatea, eta pertsonaien artean aniztasun eza egotea

Analisian ikusi izan denez, aurkitu daitezke protagonista ezberdinak. Batzuetan, *Mila eta bere lagunak* eta *El mundo es mi casa* adibideak bezala, etnia aniztasuna agertzen da protagonista eta pertsonaien artean, eta hori da eskolako liburutegiak eskaini beharko lukeena. Beste askotan, *Tintin* eta *Charlie y la fábrica de chocolate* bezalako liburuetan, protagonistak txuriak dira, eta kaukasikoak ez diren etnia ezberdinak bigarren plano batean agertu daitezke garrantzi nabarmenki txikiagoa duten rolak izanik. Fijatu beharko ginateke gure liburutegian, protagonisten artean etnia

aniztasuna eskaintzen dugun, eta etnia aniztasun horren barruan hierarkiarik dagoen ala ez.


Elisabeth Coelhok (2016) azaltzen duen moduan, kultura-estereotipoak indartu daitezke irakurtzen ditugun liburuen bidez, eta bertatik islatu daiteke edertasuna, ondasuna eta heroitasuna gazteen eta etnia zurikoen ezaugarri fisikoekin lotuta daudela, eta gainontzeko etniak



2. irudia. Haur kaukasikoa. Iturria:pxhere.com

ez direla protagonistak izateko bezain garrantzitsuak. Gainera, izatekotan, gaizto edo bazterreko rola jokatzat agertu daitezke, txurientzat lan eginez, haiei esker salbatuak izanik, autonomiarik gabe eta abar. *Charlie y la fábrica de chocolate* liburuan, txuriari esker salbatuak izan dira beren bizitza penagarrietaz, eta haientzat egiten dute lan esklabotzarekin parekatu daitezkeen baldintzetan. Honek, eragin sakona izan dezake ikasleen autoestimuan eta mundu-ikuskeran. Gainera, klase sozialari dagokionez, Charlie, klase oso baxuko haur bat da, eta bertatik irten egiten da, ez bere esfortzuarri edo gaitasunei esker, baizik eta zortez tokatu zaion sari bati esker, Coelhok dioen moduan.

Gainera, liburutegian lan egin dudana heinean, eta liburuz inguraturik egon naizen heinean, ikusi ahal izan dut liburutegi publiko batean protagonista gehienak kaukasikoak direla, eta zailagoa dela etnia aniztasuna duten liburuak aurkitzea. *Mila eta bere lagunak*, *El mundo es mi casa*, eta *Aquí estamos* liburuak dituzten ezaugarriak aurkitzea, non, etnia aniztasuna dagoen hierarkiarik gabe, eta pertsona(i) arrazializatuak pobreziarekin, delinkuentziarekin, herrialde pobretuekin... erlazionatu barik, zailagoa da. Adibide moduan, letra



3. irudia. Letra larriz idatzitako ipuinak. Liburutegi publiko batean egindako argazkia.

larriz idatzita dauden liburuak, irakurtzen hasteko egokiak diren horiek, asko mailegatu egiten dira. Hauek guztiak, bat kenduta, pertsonai txuriak dituzte. *El descubrimiento de América* liburuak, adibidez, historia izanik eta Europear ikuspuntutik kontatuta egonik, ulertzekoa da Colón, pertsonai historiko kaukasikoa, protagonista izatea. Baina ez dena egokia da, Amerikarrak historia horretan bete betean sartuta egonik, ahotsik eta agerpenik gabe agertzea. Bilatu beharko genuke, posible balitz, Amerikarren ikuspegitik idatzita dagoen libururen bat izatea, Amerikarrak protagonistak izanik, geroago azalduko den moduan.

Ez du balio etnia ezberdinak bigarren plano batean integratzearekin, kaukasoarrak garrantzitsuagoak diren islapen bat egiten baita: “Gu” gara protagonistak, lorpenak dituztenak, istorioan garrantzia dutenak eta “besteak” bigarren plano batean ipiniz, ia-ia dekorazio moduan jarrita, parte hartze nabarmenki txikia edota hutsala izanik, edota txurientzako laguntzaile gisa egonik.

Xehetasun etniko eta pertsonal ezberdinen adierazpen eta inklusio eza

Dena den, Etnia ezberdinak integratzea ez da nahikoa. *Tintinen* ikusten denez, beltz guztiak oso antzekoak dira haien artean, eta hori ez da errealitatea. Aniztasunari arreta eman ahal izateko, pertsona ezberdinen irudi errealak eskaini behar ditugu. Ez da logikoa azalaren kolore ezberdinak agertzea xehetasun fenotipiko errealistak ere integratu gabe. Hala nola, ez da nahikoa azal kolore beltza duten pertsonaiak integratzea ile afrorik ez badago pertsonaien artean. Modu berean, ez da nahikoa ile eta azal kolore ezberdinak ipintzea, betaurrekodunak, gurpildunak, hiyabak, burusoilak, lodiak, argalak, genero anitzak... inkluitzen ez badira. Pentsatu beharko genuke gelan edo ikastetxean dauden haurrak liburutegian dauden pertsonai ezberdinekin ahal den heinean identifikatzea posible izan behar dutela, eta horretarako ez gara azal eta ile kolorean besterik gabe zentratu behar. Garrantzitsua da, gainera, xehetasun hauek istorio edota estereotipo konkretuekin ez lotzea. Adibide on bat *Aquí estamos* liburua da, pertsonaien artean aniztasun handia eskaintzen baitu estereotipatu barik.

García (2008) dioen moduan, identitatea sortzea prozesu interaktiboa da, eta pertsonen nahiz ingurumenek eragin sakona dute. Bigarren sozializazioan identifikazio berriak agertzen dira eta bertan eredu berriak aurkitzen dira, eta sozializazio prozesuen bidez bakoitzak bere identitatea birdoitzen joango da. Colomerrek (2010) dio, literatura sozializazio erreminta bat gehiago dela, eta hortaz, erreferente errealistak eskaintzea beharrezkoa da haurren indetitatearen sorkuntzarako eta haien autoestimurako. Honezkero, pertsonai arrazializatuak agertzen ez badira protagonista edo pertsonai garrantzitsu moduan, eta agertzekotan ez badira eredu errealistak, eta estereotipoekin lotzen badira, haurrek horrekin identifikatzen joango dira, etnia, gaitasunak, generoa... pertsonen identitatearen alderdi garrantzitsua izan daitezkeelarik. Ondorioz, autoestimuan kaltetzeko aukera asko egongo lirake. Horregatik da hain garrantzitsua abaniko zabal hori eskaintzea.

Estereotipoak islatzea

Badaude gaur egun estereotipoak islatzen jarraitzen duten liburu anitz. Beltzak-txiroak, Txuriak-aberatsak edo Txinatarrak-azkarrak bezalakoak. Estereotipoak ez dira zergatik gezurra izan, izan ere badaude txi-roak diren beltzak, diru asko duten txuriak eta oso azkarrak diren txinatarrak, baina baita kontrakoa ere. Zergatik ez dugu Europan dagoen pobreziaren islarik egiten? Edo lorpen izugarriak izan dituen beltzik, ijitorik edo magrebiarrik ipintzen? Estereotipo batzuk islatzen dituzten ipuinak baldin baditugu, estereotipo horiek apurtzen dituzten beste batzuk ere bilatu beharko ditugu, errealitate ezberdinen abaniko bat erakusteko asmoz. Oso garrantzitsua da, Adichiek (2011) dioen moduan, istorio bakarra ez kontatzea, horrek estereotipaziora eraman gaitzake. Abaniko zabala eskaintzea garrantzitsua da arlo ezberdinetan.

Adibide moduan, Daukagu *Charlie y la fábrica de chocolate* eta *Tintin en el Congo* liburuak. Biek, Afrikako pertsonak pobreziarekin, atzerapenarekin, txabolekin, zakil-zorroekin... erlazionatzen dituzte. Tintinen komikiaren ilustrazioetan beltzen estereotipoa argi ikusten da: azal guztiz beltza, haien artean oso antzekoak diren aurpegiak, zakil-zorroak, txabolak, ezpain erraldoiak eta abar. *Charlie y la fábrica de chocolate* testuan zehar nabaritu daiteke Pigmeoen gutxiespen eta desitxuratze izugarria, paternalismoaz eta bestelako ezaugarriez gain. Mesak (D/G) dioen moduan Aurreiritzi eta estereotipoek taldeekiko ezkortasuna sustatzen dute, eta intrinsekoki elkartuta dauden hiru manifestazioetan itzultzen da: diskriminazioa, xenofobia eta arrazakeria. Ondorioz, estereotipoak islatzen dituzten ipuinak nola erabiliko ditugun ongi pentsatu beharko genuke, hezkuntza antiarrazista lortu nahi badugu.

Horregatik, *Mila eta bere lagunak*, *Estamos aquí* eta *El mundo es mi casa* bezalako liburuak izatea gure liburutegian, zeinek deskribapen, adierazpen eta irudi errealistak eta anitzak eskaintzen dituzten, talde ezberdinekiko ikuskera estereotipatua apurtzen lagundu dezakete. Liburutegi batean agertzen diren pertsonai arrazializatuak maila soziokultural, herrialde edo egoera konkretuekin lotuta badaude, estereotipazio hori legitimatuko litzateke. Aniztasuna eskainiko balitz, aldiz, ez lirateke egoera konkretuekin lotuko, eta ondorioz, aurretik esan bezala, haurrek eredu ezberdinekin identifikatzeko aukera izango lukete.

Gure liburutegiak, izan ditzake estereotipoak islatzen dituzten liburu batzuk, gogorrak edo leunagoak. Estereotipo iraingarri bat erakusten duen ipuin bat baldin badugu, bi aukera ditugu; edo deuseztatu eta ez erabili inoiz, edo haien pentsamendu

kritikoa eta hausnartzeko gaitasuna sustatzeko erabili, eta horrela gaia landu. Haurrek ikastetxetik kanpo ikusten dutena ez dugu inoiz kontrolatuko, eta horrelako eduki asko erabil dezakete, telebistan, etxeko ipuinetan eta abar. Hortaz eskolatik egin dezakeguna, lantzea da, eta haien kabuz edukien inguruan hausnartzeko gaitasuna sustatu. Haiek badute kritikarako gaitasuna, eta hori bultzatu behar dugu, eta ez zentsuratu libururik gure parametroetan sartzen ez direlako, edo xehetasun batzuk parametro horietatik aldentzen direlako, horrek aukera bikaina ematen baitigu gaitasun kritikoa garatzeko.

Ikuspegi etnozentrikoa

Coelhok (2016) zioen moduan, garrantzitsua da curriculumean ikuspuntuen arteko orekari eustea. Ez da bidezkoa ikuspegi etnozentriko batetik lantzea eduki guztiak, ikuspegi hori bakarra eta benetakoa balitz bezala, eta horrekin bat ez datozenak, edo beste modu edo ikuspegietatik planteatzen diren edukiak, atzeratuak edota baliogabeak balira bezala tratatzea. *El descubrimiento de America* liburuan, Colonek Amerika “deskubritu” izanak, ikuspegi etnozentriko batetik dator azalduta; Lehenik Europear kultura eta Indigenaren arteko kontaktuari “deskubrimendua” izendatzeagatik, eta bigarrenik “konkista” izena emateagatik. Izan ere, inbasio eta okupazio gudak horrela izendatzeak, konnotazio garaile bat ematen dio Europak Amerika kolonizatze guda horiei, Quinterok (2003) azaltzen duen moduan.

Aurretik aipatu moduan, Colon Amerikara ailegatzean, indigenekin topatu zen, eta hauen parte hartzea historian objektiboa da. Liburu honetan aipatu baino ez dira egiten, eta merkantzia moduan eraman zituen kolonek janari eta animaliekin batera. Ez zaie ahotsik ematen, eta historia Europearren ikuspuntutik kontatuta dagoen heinean, bestelako ikuspuntuak kontrastatu gabe, etnozentrikoa da. Colon heroi bat balitz bezala irudikatzen da, Espainiako eta Europako kultura bertara eraman izana objektiboki positiboa balitz bezala. Beharbada, indigenentzat, kulturaren inposaketa izan liteke. Liburu honetan ikuspegi bakarra eta historiaren zati txiki bat kontatzen da, eta hori ez da nahikoa.

Ez dago edertasuna, feminismoa, askatasuna, historia, maitasuna... ulertzeko modu bakarra. Kosmobisioa kulturak, bizimoduak, eta identitateak ere baldintzatzen du, eta beharbada alderdi hauek *izeberg kulturean* ur azpian izkutatuko lirarteke. Tokia eman behar diegu bizitza ulertzeko modu ezberdin horiei, pertsona arrazializatupei ahotsa emanik ere, ikuspuntu guztiak, giza eskubideak apurtzen ez dituzten bitartean, baliozkoak dira, eta ondorioz lekua izan behar dute hezkuntzan.

Hierarkiaren isla

Etnozentrismoarekin batera, hierarkiaren isla egiten da, talde batzuk beste batzuen gainetik ipiniz. Hasteko, protagonista eta rol garrantzitsuagoak dituzten pertsonaiak txuriak izatea, alteritatearen ikuspegia islatzen du, eta “gu” hobeak, garrantzitsuagoak, azkarragoak... garen bitartean, “besteak” atzeratuak, txiroak, balio gutxikoak... diren isla egiten da. *Tintinen* nahiz *Charlie y la fábrica de chocolaten*, paternalismoaren isla nabaria dago. Txurien metodoak eta bizimoduak “beste” horeinak baino askoz hobeak balira bezala irudikatzen dira, eta hortaz, “beste” horiek txurien laguntza behar dute haien bizimodu penagarriak hobetzeko. *Charlie y la fábrica de chocolaten*, esklabotza haien salbazioa balitz bezala irudikatzen da, haien bizimodua Afrikan penagarria balitz bezala. Honek paternalismoa irudikatzeaz gain desitxuratze izugarria da, izan ere Pigmeoak ez dira fantasiako izakiak, gizaki errealak baizik.

Tintinen, hierarkia izugarria nabaritzen da. Tintin Kongora ailegatzen da, herrialdea bat ere ez ezagutu barik eta bertakoei aginduak ematen die momentu orotan. Bertakoek gauza ugari jakingo ez balute bezala irudikatzen dituzte, eta Tintinek erraz laguntzen ditu, matematikak irakatsiz, lehoiengandik salbatuz edota gaixo bati pilula bat emanaz eta “izpirituetaz” sendatuz. Komikiaren azkenengo irudia oso adierazgarria da: Behin Tintin Europara bueltatu dela, denek gogoratzen dute oso modu positiboan, eta batek ere, *Tintinen* eta Miluren estatua bati erreberentzia egiten dio, jainkoak balira bezala. Azkenengo hau, komikian zehar behin baino gehiagotan agertzen da. Azken finean, Europearren irudia goraiatu egiten da Afrikarrena gutxien den bitartean.

Hizkuntza arrazista, xenofoboa, diskriminatzailea, klasista, gerontofobikoa...

Askotan, guk jakin gabe, arrazakeri ezkutuak aurkitu genezake ipuin ezberdinetan. Hizkuntzak ez dauka zergatik argi eta garbi iraingarria izan behar arrazista izateko. Ez daukagu zergatik “Sudaca” edo “negrata” bezalako termino despektiborik aurkitu behar hizkuntza arrazista izateko. Ipuin batzuk kultura batzuen, etnia batzuen, herrialde batzuen... inguruan modu garbi eta poetiko batean hitz egin dezakete horiek gutxien ari diren bitartean. “Negrito” hitza adibidez, itxuraz errespetuz esan daiteke, baina horren atzetik beltza izatea leuntzeko esaten dela ulertu daiteke, beltza izatea zerbait negatiboa izango balitz bezala, *Tintinen* agertzen den moduan. Ramírezek (2018) dioen moduan, hori bezalako txikigarriek, Torresek komentatzen duen infantilizazioan erori daitezke.

Ekidin beharko genuke talde etniko edota kultural baten aurka ekiten duen edozein hizkuntza forma. “Gu” azkarrak gara, haiek motelak, gu onak gara, haiek gaiztoak, gu modernitatearen isla gara, haiek atzerapenarena, guk gaitasun ugari ditugu, haiek ez dute balio... Santomeren (2008) aburuz errealitatea desitxuratu egiten dute. Horrelako baieztapenak egiten duenarekin, modu zuzenean edo zeharkakoan, kontuz ibili beharkoginateke. Hala nola, *Charlie y la fábrica de chocolaten*, Pigmeoen inguruan hitz egiteko modua txikigarriez, gosearekin eta egoera tamalgarriekin erlazionatzen dira: *diminutos, muriéndose de hambre, pobre hombrecillo, aspecto famélico, trepando a los árboles, ¡Pobres pequeños Oompa-Loompas!*... Pigmeoak inportatuak izaten direla komentatzen da, zulatutako kutxetan, objektuak balira bezala. Gauza bera gertatzen da *El descubrimiento de América* liburuan. Argi eta garbi esaten ez den arren, gainontzeko merkatziarekin ekarriak baitira.

Tintinen, Beltzek hitz egiteko modua ere asko esaten du. “tu no hacer” “siñor” “tomovil (autoa)”, “Venir hombre blanco y pegar negro” bezalako hizkerek hitz egiten jakingo ez balute bezala irudikatzen dituzte (Kongon Gaztelera hizkuntza ofiziala ez izan arren).

Kulturen errealitatea desitxuratzea

Charlie y la fábrica de chocolaten eta *Tintin en el Congon*, argi ikusten da nola kultura, pertsona, ohitura, bizimodu... ezberdinen desitxuratzea egiten den. Ez da errealitatea islatzen, eta beharbada, idazleak ez zuen idazten ari zen horretaz informazio nahikorik. Kultura baten adierazpen bat baldin badago libururen batean, begiratu beharko genuke errealista den edo ultraestereotipatua agertzen den. *El mundo es mi casa* liburuan, kultura ezberdinen aurkezpen laburra egiten da, xehetasun ezberdinekin, egunerokotasuneko ezaugarriekin, janariekin eta bestelakoekin. Gainera, kultura horretako parte hartzaileak dira horren inguruan hitz egiten dutenak, etnozentrismotik aldenduz eta pertsonai arrazializatuei ahotsa emanik. Kultura horren partaide diren pertsonen haien buruekiko hitz egiteak egitasuna ematen dio istorioari, ez baita horrekin zerikusirik ez duen norbait kontaktzen duena.

Mila eta bere lagunak ere, xehetasun kultural ezberdinak islatzen ditu. Izan ere, eskola eta gero lagunak etxera joatea arratsaldea pasatzera, xehetasun kulturala izan daiteke, ez dena gizarte guztietan konpartitzen edota ez modu berdinean. Zeharka, xehetasun kulturalak islatzen dira, hemengo kulturarekin erlaziona daitezkeenak, eta are gehiago, pertsona arrazializatuak protagonistatzat dituenak. Estereotipoa apurtu egiten

da, hemengo kultura pertsona arrazializatuekin erlazionatzen bada, eta ez soilik pertsona txuriekin, aurretik komentatu bezala. Horrek, hainbeste erakusten ez den errealitate bat islatzen du, eta beharrezkoa da horrelakoak inkluitzea hezkuntzan.

Hizkuntzak gutxiestea

Tintin en el Congo komikian, Kongoko autoktono guztiek gaztelera hitz egiten dute, eta gainera nahiko gaizki, hitz egiten jakingo ez balute bezala. Kongoko hizkuntza ofizialen artean, frantsesa, suajilia, kikongoa, lingala... aurkitzen dira, baina ez gaztelera. Ez da ezta komentatu ere egiten zein hizkuntza dauden bertan, eta denak gaztelera komunikatzen dira. Alde batetik logikoa da istorioa hizkuntza batean idatzita egotea, baina hala egiten bada, Kongoko autoktonoek modu berdinean hitz egin dezatela, ez lardaskatuz. *Charlie y la fábrica de chocolaten*, modu berdinean, ez da Pigmeo horien hizkuntza zein den adierazten, are gehiago, haien hizkuntza komentatu egiten da, baina guztiz asmatua da: Oompa-loomperaz hitz egiten baitute. *El descubrimiento de Américan* ez da indigenen inguruan hitz egiten, hortaz ez da komentatzen haien hizkuntzen edo kulturen inguruko ezer.

Aldiz *El mundo es mi casa* liburuan, herrialde eta kultura ezberdinen inguruan hitz egiten den heinean, hizkuntzak ere inkluitu egiten dituzte. Bakoitzaren kontakizunean zehar, hitzak, agurrak, jaialdiak... haien hizkuntzan idazten dira, eta alboan hitz horien azalpenen zerrenda txertatzen da. Faltan bota daitekeen kontu bakarra da, hitz ezberdinak alfabeto ezberdinetan idatzita egotea ere. Hizkuntza ezberdinei tokia utzi beharko litzateke, eta are gehiago kulturaren baten inguruan hitz egiten denean. Hizkuntzak kultura ezberdinen parte dira, eta baita pertsonen identitatearen parte ere, neurri handiago edo txikiago batean. Barquinek (2015) dioen moduan, gelan ditugun haurren ezaugarriak baloratu eta prestigioa eman beharko diegu, haien identitatearen sorkuntzan eta autoestimuan laguntzeko. Ezaugarrietako bat, ama hizkuntza da, eta estimatzeko modu bat, liburutegian hizkuntza eta alfabeto ezberdinen agerpena izan daiteke. Adibidez *Printze txikia* liburua 250 hizkuntza ingurutan itzulita dago. Kongoko haur bat izango bagenu, eta *Tintin en el Congo* komikia irakurriko balu, nola sentituko litzateke?

Zer ezaugarri izan behar ditu ikastetxeko liburutegiak

liburuen analisitik, ekidin beharreko xehetasun batzuk agertu izan dira, alderdi ezberdinetan kale egiten duten liburuetan oinarriturik, batez ere. Ondorioz, eta baita

laginetik ateratako liburu ezberdinen alderdi positiboak ikusita, liburutegi batek ondoko xehetasunak izan beharko lituzkela ondorioztatu daiteke:

Jende anitza egunerokotasuneko ekintzak egiten

Ikusi izan denez, jotzen da noizbehinka etnia konkretu batzuk ezaugarri konkretu batzuekin elkarlotzera. Estereotipazio hori apurtzeko, jende anitza egunerokotasuneko ekintzak egiten agertu beharko litzateke. Hau da, Etnia ezberdinen agerpena egotea oso garrantzitsua da, baina bakoitzaren rola ere zein den ikuskatu beharko genuke. Ekidin beharko genuke, kaukasikoak ez diren etnien agerpena immigrazioarekin edota atzerriarekin, eta horrekin zerikusia duten problematikekin lotzea momentu osoan. Hortaz, etnia ezberdinak hemengo edo beste edonongo egunerokotasunean izan daitezkeen istorioen protagonistak izatea ere beharrezkoa da. Pertsonaia arrazializatuak igerilekuan, parkean, eskolan... girotutako istorioetan agertu daitezke, beldurra, laguntasuna, zenbakiak... lantzeko ipuin ezberdinetan. Eskolan, haur arrazializatu ugari izango ditugu (ziurrenik), eta merezi dute haien etniak immigrazioarekin edo atzerriarekin lotuta ez dauden istorioetan agertzea, haien bizitzekin erlazioa sortu ahal izateko.

Abaniko zabal bat eskaintzea estereotipoak apurtuz

Modu orokor batean, garrantzizkoa da, Adichiek (2011) dioen moduan, istorio batean ez tratatzea eta errealitate anitzak ezagutzea, estereotipaziotik aldendu ahal izateko. Ez da beharrezkoa ezer asmatzea, errealitatea jada anitza da, eta horren erakusketa errealak eskainiz, lortu daiteke abaniko zabal hori eskaintzea. Istorio zabalak izanik, aukera zabalak eskaintzen zaizkie haurrei. Garrantzitsua da egunerokotasuneko gai ezberdinak protagonista anitzekin batera kontatzea, baina baita ere munduko errealitate ezberdinak eta anitzekin batera. Bai, adopzioa, herrialde pobretuak, gudak, errefuxiatuak, paterak, tribuak eta abar, munduaren errealitate ezberdinak izanik, liburutegian agertu daitezke, eta beharko lirateke. Badaude honaino patera batean ailegatu diren pertsonak, baina baita hegazkin batean ailegatu direnak ere. Badaude Hiyaba janzten duten marokoarrak, eta baita erabiltzen ez dutenak ere. Badaude familiako negozioan lan egiten duten ijitoak, eta baita politikan aritzen direnak ere. Errealitateak erakustean, pentsatu behar dugu nola apurtu estereotipoak, hainbeste ikusarazten ez diren errealitateekin batera.

Etnia, jatorri, genero... ezberdinetako erreferenteen inguruko ipuinak erabiltzea

Aurreko puntuak kontuan izanik, erreferente ezberdinak eskaintzeko aukera emango guke liburutegian. Dena den, liburutegi publikoan lan egin izanaren ondorioz, ikusi izan dut zailagoa dela istorio batzuk aurkitzea beste batzuk baino. Hala nola, ez daude ijitoak diren pertsonai gehiegirik. Gure lana izan beharko litzateke hain eskuragarriak ez diren istorioak eskolako liburutegira ekartzea. Abaniko hori zabaltzearen ideia da, haurrek erreferente horiek izatea eta ikustea zer egitera ailegatu daitezkeen. Handitzean nahiko balute familiako negozioarekin jarraitu primeran, baina ez izatea beste aukerarik ez dutelako ikusi. Argitu behar zaie nahi duten hori egin dezaketela, eta haien bizitza ez dagoela mugatuta talde sozial horretan egin ohi den horretara. Pigmalion efektua hemen sartu egiten da ere. Guk talde sozial batzuekiko ditugun espektatibek asko kaltetzen dute, eta espektatiba altuak izatea erreferente zabalagoak eskaintzearekin batera, lagundu diezaiekete haien buruarekiko autokontzeptua eta autoestimua handitzen, eta haien bizitzekiko espektatibak zabaltzen. Hori lortzeko, pertsonai famatuena ipuinak edota istorio errealak gehitu ditzakegu, hala nola *Carmen Amaya*, *El lápiz mágico de Malala*, *Marie Curie*, *Muhammad Ali*, *Malcolm Little*, *Harriet Tubman* eta abar.

Ezaugarri kultural anitzak erakustea

Izeberg kulturalak ezaugarri anitz dituelarik, ezaugarri kultural ezberdinak modu zabalean eskaintzea egin daiteke. *Mila eta bere lagunak* nahi gabe kulturala den ezaugarri bat erakusten du, hemengo gizartearekin erlazionatu daitekeena. Era berean, beste motatako erritualak, keinuak, agurrak, sinboloak... agertu daitezke. Hala nola, familia eredu ezberdinak ezaugarri kulturalizat ere hartu daiteke. Familia eredu ezberdin ugari daude gure gizartean eta munduan, eta erakutsi beharko lirateke, familia tradizioetatik eta familia eredu nuklearretik pixka bat aldenduz, eta existitzen diren beste eredu guztiei lekua utziz. Familia interetnikoak, monoparentalak, dibortziatuak, 15 neba-arreba dituztenak, aitona-amonekin hazi direnak, guraso homosexualak, lehengusuei garrantzi handia ematen dizkietenak, lehengusuak izan arren erlaziorik ez dutenak, familia handiak, familia txikiak, odola konpartitzen ez duten familiak, seme-alabarik ez dutenak...

Beste ezaugarri kultural garrantzitsu bat, hizkuntza da. Gelan ama hizkuntza ezberdinak egon ohi dira, eta hori ere identitatearen parte garrantzitsua izan daiteke. Hortaz prestigioa eta agerpena ematea garrantzia dauka. Liburuen bidez, hizkuntza ezberdin horiek gelan sartu ditzakegu. Ideia ona izan daiteke ipuin elebidunak izatea, euskaraz irakurtzeko ahalmena ematen digutenak baina baita beste hizkuntza batean

idatzita daudenak ere. Modu honetan guk geuk irakurriko genuke liburua eskolako hizkuntza horretan, eta haiek beste hizkuntza hori, idazteko norabidea, alfabetoa... ikusteko aukera izango dute, horiekin ohitzen joateko txikitatik. Beste ideia bat izan daiteke gustatzen zaien liburu baten hizkuntza ezberdinen bertsioak izatea.

Talde sozial ezberdinei ahotsa ematea

Etnozentristotik aldentzeko asmoz, talde sozial ezberdinei ahotsa ematen dieten ipuin ezberdinak izan beharko genituzke. Ez izatea txuriak bakarrik, ezta batez ere, ahots bozeramailea dutenak. Eta ez hori bakarrik, ipuinaren ikuspegia etnozentrikoa ez izatea ere begiratu beharko genuke. Horretarako herrialde ezberdinetako idazleen ipuinak edota istorio tradizionalak izateak, begirada ezberdin bat eskaini diezaioke gure liburutegiari. Idazle horien bidez, idazteko modu ezberdinak, munduaren ikuskera ezberdinak, ohitura ezberdinak... ezagutu ditzakegu zeharka. Modu honetan, etnozentristotik aldentzeko aukera izan genezake, testu ezberdinak, ilustrazio ezberdinak, esaera ezberdinak... ezagutzuz. Honekin ere, curriculum zabaltzeko eta idazle anitzagoak ezagutzeko aukera eskainiko genuke, curriculum etnozentrikotik aldentuz.

Arrazakeria, xenofobia, diskriminazioa... zuzenean lantzen dituzten ipuinak.

Bilatu ditzakegu ere gai ezberdinak zuzenean lantzeko helburua duten ipuinak. Liburu hauetan ager daitezke gizartean edota eskolan gertatu daitezkeen egoera ezberdinak, termino ezberdinen azalpenak, edota historian gertatutako eta gertatzen ari diren egoera desberdinen azalpena, haurren adinari egokituta dagoena. Izan ere, haurrok nahiz helduok beti gaude jasotzen eredu diskriminatzaileak, eta ez badugu lantzen agian ez diogu gure buruari planteatuko zergatik ari garen diskriminatuak izaten.

MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Egindako ikerkuntza lan honek zailtasunak eta mugak izan ditu, beste edozein lanak izan ditzakeen moduan. 2019-2020 artean burutu izan dudanez, imajinagarria da zein izan den mugetako bat. Marko teorikoaren aldetik, erraztasun batzuk izan ditut minorrean landutako testu ezberdinak erabiltzeko aukera izan dudalako, baina Martxoan ailegatu eta lana burutzeko mugak agertzen hasi ziren. Alarma egoeraren ondorioz ezin izan ditut, gainontzeko ikasleek bezala, tutoretza presentzialik egin, eta horrek ulerkuntza maila mugatu didala uste dut. Bestalde, eta mugen artean handiena izanik, liburutegietara joateko aukera galdu izana da. Nire ikerketak ipuin ezberdinen azterketan oinarritzea zuen helburu, eta azkenean, ikuskatuta nituen 40 ipuin ingurutik, sei liburu baino ezin izan ditut eskuratu analisi hori burutzeko. Dena den, zorte ona izan dudala onartu beharra daukat, izan ere ipuin interesgarriak esku-arteaz izateko aukera izan dut.

Bestalde, eta arazo bat baino, muga izanik, lanaren luzera da. Landutako gaia, oso zabala da, eta agertutakoa baino kontu gehiago sartzeko aukera ematen du. Ikerketarekin aurrera jarraituko banu, alde batetik marko teorikoare zabalagoa eskainiko nuke, azterketa sozial ezberdinak txertatuz, eskola publikoa eta kontzertatuaren inguruko azterketak, talde sozial ezberdinen parte hartzea gizartean, eskola ezberdinetako liburutegien konparaketak, portzentaiak, datu konkrituak eta abar. Gainera, honek eskainiko luke liburuen analisirako kategoriak zabalagoak izatea. Honetaz gain, eta aurretik aipatu dudan moduan, lagina mugatua izan da. Uste dut ikerketa zabalagoa izan dadin liburu gehiago aztertu beharko lirakekeela, txertatuz ere liburuen artean kontu ezberdinen inguruko portzentaiak, hala nola protagonista arrazializatuenak eta hauen rolak.

Bestalde, marko teorikoan eta liburutegia sortzeko aholkuen artean, ez da agertzen formatuen aniztasuna. Ez da berdina ipuin finko bat izatea, edo istorioak kontatzeko edota sortzeko modu ezberdinak ere txertatzea. Interesgarria izango litzateke haien sormena eta parte hartzea sustatzeko jolas edo ipuinen formatu ezberdinak ere ikertu eta liburutegian edukitzea. Pentsatu ditudan formatu ezberdinak hauek dira:

-Letrarik gabeko ipuinak: irakurtzeko beharrik ez dutenak, irudiez besterik gabe istorioren bat kontatzen dutenak. Honekin, hurrek istorioa kontatu nahiko balute, posible izango lukete, bakoitzaren kontatzeko modua, edota istorioa ulertzeko moduari bide askea emanaz.

-Narrazio ipuinak: Istorioak ez ditugu beti irudiekin lagundu behar. Bakoitzaren imajinarioari bidea utzi diezaiokegu, gure ahotsaz eta beharbada gure gorputzaz ere lagundutako istorioak kontatuz.

-Karta jolasak: Istorioak sortzeko kartetako jolasak sartu genezake. Karta hauek hitz, esaldi edota irudi ezberdinak izan ditzakete, eta ateratzen zaienaren arabera istorioa leku batetik edo bestetik bideratuko lukete. Taldeka, binaka edota banaka jolasteko aukera emango lukete.

-Dadoak: Aurrekoaren antzera, dado hauek marrazki edo ikur ezberdinak izan ditzakete eta ateratzen denaren arabera istorio bat asmatu. Posible litzateke ere, dado hauekin batera panpinak izatea, istorioari laguntzeko. Dado batek panpinei egin ahal die erreferentzia.

-Liburu ibiltaria: Vilak (2011) Liburu ibiltaria proposatzen zuen. Liburu hau koaderno garbi bat izan daiteke. Astero (edo behar duten denbora tarteak utzita) haur batek eramango du etxera, eta familiaren laguntzaz idatzitako, marraztutako, kontatutako, irudikatutako... zerbait ekarriko du bueltan. Bakoitzak pare bat orri izango ditu idazteko, koaderno horrek dituen orri kopuruen arabera, eta hasieran liburuaren azalpena txertatuko da. Kontuan izan behar dugu familia guztiek ez dutela alfabetizazio maila alturik, eta batzuk ez dakitela irakurtzen, edo ezin dutela letraz idatzitako testurik irakurri ez dutelako ikusten, adibidez. Horren aurrean ahoz azaltzea edota brailez ere ipintzea egokia litzateke, dagoen aniztasunari arreta emanez eta familia guztiek zer egin dezaketen eta helburua zein den jakin dezaten. Modu honetan, kurtso amaieran gela osoak eta beren familiak osatutako liburu bat izango genuke.

Azkenik, komentatu beharra dago, beharbada lan honetan faltan bota daitekeen kontu bat, materialak erabiltzeko modua da. Ondo dago material anitzak izatea agertzen diren parametroak jarraiki, baina erabiltzeko modua ez baldin bada egokia arazo bat egongo litzateke. Hortaz, lan honekin jarraituko banu, gehituko nukeen zerbait da, material guzti hauen erabileraren jarraibideak edo aholkuen inguruko ikerketa, arrazakeriaren aurka ekin (beste diskriminazio mota batzuekin batera), eta kulturartekotasunari mesede egin ahal izateko.

BIBLIOGRAFIA

- Abric, J.C. (1994). *Pratiques sociales et représentations*. Ed. PUF París.
- Adichie, C. (2011) *El peligro de la historia única*. TED. Webgune honetatik berreskuratuta:
https://www.ted.com/talks/chimamanda_ngozi_adichie_the_danger_of_a_single_story?language=es
- Aierdi, X. (2014). *Rumores, setas venenosas y otras especies peligrosas*. Estudio diagnóstico sobre el fenómeno migratorio en Vitoria-Gasteiz.
- Allport, G. (1979): *The Nature of Prejudice*. Reading, Massachusetts: Wesley Publishing Company (la Ed.1954).
- Antón, I (2016). *Literatura infantil y juvenil:cuentos de hoy, estereotipos de siempre*. EHU, Leioa. Webgune honetatik berreskuratuta:
https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/20091/TFG_AntonVazquezIratxe.pdf?sequence=2&isAllowed=y
- Appiah, Kwame Anthony (1990) Racism. J. Perry, M. Bratman eta J.M. Fischer (eds.) (2005). *Introduction to philosophy. Classical and contemporary readings*. Oxford: Oxford university press.
- Barquín, Amelia (2009) ¿De dónde son los hijos de los inmigrantes? La construcción de la identidad y la escuela. *Educar* 44, 81-96.
- Barquin, Amelia (2015) ¿Qué debe hacer la escuela con las culturas familiares del alumnado inmigrante? *Educar* 51(2), 443-464.
- Besalu, X. (2002). *Diversidad cultural y educación*. Madrid: Síntesis.
- Bourdieu, P. (1980) L' identité et la représentation. *Actes de la recherche en sciences sociales*, 35, pp 63-72.
- Bourdieu, P. (1998). *La distinción*. Madrid: Santillana.
- Brake, T., Walker, D. & Walker, T. (1995). *Doing Business Internationally*. Burr Ridge, United States: Irwin.
- Castillo Echebarria, R. (2014). *El efecto pigmalión. ¿Hasta qué punto determina nuestro futuro la visión que los demás tienen de nosotros?*. Universidad pontificia de comillas. Madrid.
- Castillo, S. et al. (2009). *Habilidades sociales*. Barcelona: Altamar
- Suárez-Orozco, C. eta Suárez-Orozco M. (2003). *La infancia de la inmigración*. Madrid: Morata, 291 pp.
- Coelho, E. (2016) *Curriculum inklusiboa. Eskola kulturantzunetan irakastea eta ikastea*. Bilbo: EHU.

- Coelho, e., Oller, J., Serra, J. (2013). *Lenguaje y aprendizaje en el aula multilingüe*. Barcelona: Horsori.
- Colectivo Amani (1994). Educación intercultural. Analisis y resolucion de conflictos. Madrid: editorial popular.
- Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Madrid: Síntesis
- Cortina, A. (1997). *Ciudadanos del mundo, hacia una teoría de la ciudadanía*. Madril: Alianza editorial.

- Del olmo, M. (2005) Prejuicios y estereotipos: un replanteamiento de su uso y utilidad como mecanismos sociales. XXI. *Revista de educación*, 7, 13-24. Universidad de huelva

- Dortier, J. F. (2002) Dossier sur les représentations. *Sciences humaines*, 128.
- Ezeiza, A. eta Encina, J. (2018). Kultura eta kulturak. Ezeiza, A. eta Encina, J. (koord.). *Separata: jabetzarik gabeko hezkuntza*. 65-75. Gasteiz: EHU.
- García Martínez, Alfonso (2008) Identidades y representaciones sociales: La construcción de las minorías. Nómadas. *Revista crítica de ciencias sociales y jurídicas*. 18 (2). Webgune honetatik berreskuratuta:
<http://theoria.eu/nomadas/18/alfonsogarcia.pdf>
- García Sanchez, I. (2007). Identidad y marginación: experiencias cotidianas de niños inmigrantes marroquíes en una escuela pública Española. *EMIGRA working papers*, 11.
- Grasa, R. (1988) El racismo en los libros infantiles y juveniles. *Cuadernos de pedagogía*, 168, 50-55.
- Jordan, J. (1988). An analysis of the problem of disappearing black educators. *The elementary school journal*, 88 (5), p. 503-513
- Kahneman, D., Tversky, A. (1982). *Judgment under uncertainty: Heuristics and biases*. Cambridge University press.
- Lovelace, M. (1995). *Educación multicultural. Lengua y cultura en la escuela plural*. Madrid: Editorial Escuela Española.
- Maalouf, Amin (1999). *Identidades asesinas*. Alianza editorial
- Mesa, M. (d/g). *La imagen del Sur. Racismo, clichés y estereotipos. Unidad Didáctica de Educación Intercultural*. Madrid: Fundación Hogar del Empleado. Centro de investigación para la Paz.
- Penna, M. L. F.(1977) *Identidade social, linguagem e discurso*, Recife, UFPE, Tesis de doctorado.
- Podestá, C. (2006) Un acercamiento al concepto de cultura. *Journal of Economics, Finance and Administrative Science*, vol. 11, núm. 21, diciembre, 2006, pp. 25- 39

Universidad ESAN Surco, Perú. Webgune honetatik berreskuratuta:
<https://www.redalyc.org/pdf/3607/360733601002.pdf>

- Ramírez, J. (2018). *Racismo y antirracismo en literatura. Lectura etnocrítica*. Costa Ricako Unibertsitate Nazionala. Webgune honetatik berreskuratuta:
<https://repositorio.una.ac.cr/bitstream/handle/11056/14816/Racismo%20y%20antirracismo%20en%20literatura.%20Lectura%20etnocr%20c3%20adica.pdf?sequence=4&isAllowed=y>

-Torres Santomé, J. (2008): Diversidad cultural y contenidos curriculares. *Revista educación 345*, 83-110.

-Van Dijk, Teun A. (1993) *Discurso y racismo*. Instituto Latinoamericano de Doctrina y Estudios Sociales ILADES. Universidad Alberto Hurtado. Webgune honetatik berreskuratuta: <http://www.discursos.org/Art/Discurso%20y%20racismo.pdf>

-Vila, I. (2011) El éxito académico no puede depender del conocimiento de la lengua. (Entrevista de A. Anaitze). *Mugak*, 56, 65-69.

-Quintero, M. (2003). *Racismo, Etnocentrismo Occidental y Educación. El Caso Venezuela**. Universidad de los Andes.

ERANSKINAK

1- Ipuinen Lagina

AUTORETZA	Roald Dahl, Quentin Blake
IZENBURUA	Charlie y la Fábrica de chocolate
ARGITALPEN URTEA	1964
ARGITALETXEA	Alfaguara
HIZKUNTZA	Gaztelera
ORRIALDE-KOPURUA	200
IRAKURGAI-MOTA (IPUINA, POESIA, ALBUM ILUSTRATUA...)	Ipuina
GOMENDATUTAKO ADIN-TARTEA	8-tik aurrera

SINTESIA	Wonka txokolate-lantegiaren jabeak bost txartel ezkutatu ditu txokolatinetan. Txartel horiek lantegi miresgarri eta zoragarria bisitatzeko aukera ematen dute. Charliek, zorionez, txartel horietako bat aurkituko du. Ondoren, bere bizitza zeharo aldatuko da eta gauza bera gertatuko zaie bere gurasoei, bere bi aitonei eta bere bi amonei.
----------	--

AUTORETZA	Fernando G. Rodriguez
IZENBURUA	El descubrimiento de América
ARGITALPEN URTEA	2012
ARGITALETXEA	Weeblebooks (online)
HIZKUNTZA	Gaztelera
ORRIALDE-KOPURUA	34
IRAKURGAI-MOTA (IPUINA, POESIA, ALBUM ILUSTRATUA...)	Historia liburua
GOMENDATUTAKO ADIN-TARTEA	7 urtetik aurrera
SINTESIA	Colonen historia eta nola ailegatu zen Amerikara azaltzen duen liburua da.

AUTORETZA	Hergé Zendrera, Concepción
IZENBURUA	Tintin en el Congo
ARGITALPEN URTEA	2007
ARGITALETXEA	Juventud
HIZKUNTZA	Gaztelera
ORRIALDE-KOPURUA	63
IRAKURGAI-MOTA (IPUINA, POESIA, ALBUM ILUSTRATUA...)	Komikia

GOMENDATUTAKO ADIN-TARTEA	10 urtetik aurrera
SINTESIA	Tintin eta bere txakurra Kongora bidaiatzen dute. Bertan, Coco, bertako haur batek, beren bidaietan laguntzen die.

AUTORETZA	Judith Koppens, Anopuk Nijs
IZENBURUA	Mila eta bere lagunak
ARGITALPEN URTEA	2016
ARGITALETXEA	[Donostia-San Sebastián] : Ttartalo L.G.
HIZKUNTZA	Euskara
ORRIALDE-KOPURUA	20
IRAKURGAI-MOTA (IPUINA, POESIA, ALBUM ILUSTRATUA...)	Ipuina
GOMENDATUTAKO ADIN-TARTEA	0-4
SINTESIA	Mila gaur aitaren etxera doa. Omar eta Inge, bere lagun berriak, etxera datoz jolasean ibiltzera. Munstroetara jolas egingo dute. Aitak ere pozik egingo du haiekin jolas. Munstro-orraskera dibertigarriak egin, eta munstro-opil goxo-goxoak prestatu dizkie. Primeran ibili dira! Halako batean, Omarren eta Ingeren amak hurbildu, eta atea jo dute. Zer esango ote dute munstro txikiak ikusita?

AUTORETZA	Maia Brami Karine Daisay
IZENBURUA	El mundo es mi casa
ARGITALPEN URTEA	2017
ARGITALETXEA	Barcelona : Zahorí
HIZKUNTZA	Gaztelera
ORRIALDE-KOPURUA	96

IRAKURGAI-MOTA (IPUINA, POESIA, ALBUM ILUSTRATUA...)	Ezagutza
GOMENDATUTAKO ADIN-TARTEA	5 urtetik aurrera
SINTESIA	Munduko leku ezberdinetako haur ezberdinen kontakizunak eskaintzen digun liburua da. Bakoitzak bere bizitzaren kontu ezberdinak azaldu egiten du bere ikuspuntutik. Ezaugarri kultural ezberdinak kontatzen dituzte, eta hizkuntza ezberdinen hitzak ere agertzen dira.

AUTORETZA	Oliver Jeffers
IZENBURUA	Estamos aquí: notas para vivir en el planeta tierra.
ARGITALPEN URTEA	2020
ARGITALETXEA	Andana
HIZKUNTZA	Gaztelera
ORRIALDE-KOPURUA	48
IRAKURGAI-MOTA (IPUINA, POESIA, ALBUM ILUSTRATUA...)	Album ilustratua
GOMENDATUTAKO ADIN-TARTEA	5 urtetik aurrera
SINTESIA	«Kaixo eta ongi etorri planeta honetara. Lurra esaten diogu. Globo handi bat da, espazioan zintzilik, eta hor bizi gara gu». Halaxe hasten da Oliver Jeffers idazle eta ilustratzailearen maisulan hau, mundu honetara iritsi berriak jakin beharreko guztia azaldu nahian. «Ederra da atzera begiratzea eta gure planeta bere horretan ikustea, planeta soiltzat. Guztiz bestelako ikuspegia da; egiaz, balio du konturatzeko gure existentzia zeinen hauskorra den»

2- Ipuinen analisia

Analisirako irizpideak	Deskriptorea- Charlie y la fábrica de chocolate
-------------------------------	--


Segregazioa	<p>Protagonista klase oso baxuko haur bat da, lau aitona-amona eta gurasoekin bizi dena. Kaukasikoak dira. Willy Wonka pertsonai arrakastatsu, kaukasikoa eta Europearra da, Txokolatezko fabrika garrantzitsu bat duena.</p> <p>Oompa-Loopmak fabrika horren langileak dira, Wonkarentzat lan egiten dutenak txokolatearen truke, eta esklabotzarekin konparagarria izan daitekeena. Pigmeoen tribu oso bat da.</p>
Protagonistak	Oompa-Loopmak pertsonai arrazializatuak dira, Pigmeoak hain zuzen ere. Protagonistak txuriak dira, eta hauek laguntzaile moduan agertzen dira, txuri arrakastatsuentzat lan eginez desabantaila egoera batean. Denak antzekoak dira haien artean eta oso dialogo eskasak dituzte, eta denak batera abesten agertzen dira, gainontzeko pertsonaiei gertatzen zaienaren inguruan.
Pertsonaiak	Pigmeoen deskribapena talde moduan egiten da, orokorrean. Ez da bakoitzaz hitz egiten. <i>“A los Oompa-Loopas les gusta...”</i> bezalako orokortzeak egiten dira. Willy Wonkaren irudia aldiz, bere lorpenen ingurukoa da, pertsona arrakastatsua da: <i>“Willy Wonka, el mayor inventor y fabricante de chocolate que ha existido”</i> . Charlieren inguruan ere, hitz positiboak agertzen dira, familiarekin konprometitua, alaia, umila... <i>“Adoraban al pequeño Charlie. El era la única alegría de su vida, y sus visitas nocturnas eran algo que esperaban ilusionados durante todo el día”</i>
Desitxuratzea	Oompa Loopmak oso ezberdinak eta exotikoak balira bezala aurkezten dira, eta haien kultura gutxietsia agertzen da. Pigmeoen kulturaren desitxuratzea egoten da, beren bizimodua ipuinean agertzen den moduan, errealitatearekin bat etorri gabe.
Bazterkeria	Pigmeoak estereotipatuak agertzen dira, beren bizimodua desitxuratuta egonik. Diote beren janari bakarra beldar nazkagarriak zirela, zuhaitzetan zituzten etxeetan bizi zirela, eta haien bizimodua penagarria zela Wonka agertu baino lehen. Zioten ere, Wonka ailegatzean Tribuaren burua hezur eta larru eginda zegoela (Afrikarekin lotutako estereotipoa). Aldiz, Wonka gizon arrakastatsua da, fabrika famatua duena.
Paternalismoa	<p>Wonkak azaltzen du, nola Pigmeoen bizimodua bera ailegatu baino lehen, penagarria zen, aurretik azaldu moduan. Wonkak azaltzen du nola berak aurkitu zituen, nola berak ekarri zituen fabrikara eta berari esker beren bizimodua hobetu egin zen. Pigmeoek ezin zituzten hainbeste gustuko zituzten kakao fruituak eskuratu noizean behin baino gehiagotan (Afrikan hazi arren), eta berak pila bat zituela bere fabrikan. Ez da komentatzen nondik ateratzen dituen fruituak Wonkak, izan ere ingalateratik ez dira eratorriak. Wonkaren irudia salbatzailearena da, eta Pigmeoak esker onekoak agertzen dira berarekin.</p> <p><i>-Yo mismo los descubrí. Yo mismo los traje de África</i></p>

	<p><i>-«escucha, si tú y toda tu gente venís conmigo a mi país y vivís en mi fábrica, podréis obtener todos los granos de cacao que queráis</i></p> <p><i>-El hombrecillo dio un brinco de alegría y arrojó su cuenco de orugas aplastadas por la ventana de la casa en el árbol. «¡Trato hecho!», gritó«¡Vámonos ya!»</i></p> <p>Klase sozialari dagokionez, Charlie eta bere familia pobreziatik irteten dira Wonkaren saria lortzeari esker.</p>
Infantilizazioa	<p>Pigmeoak, benetako etnia bat izan arren, ipuin honetan fikziozko pertsonaiak balira bezala aurkezten dira, fantasiako izakiak. Benetako pertsonak direla komentatzen den arren, islatzen dena fantasiarekin du lotura estuagoa, errealitatearekin baino. Egun osoan dantzatzen, kantatzen eta goxokiez eta txokolatez elikatzen.</p>
Bitxikeria	<p>Ez dira bakarrik exotikoak eta arraroak balira bezala aurkezten, baizik eta animaliekin edota objektuekin konparagarriak diren tratuak ematen zaie.</p> <p><i>-¡Son pigmeos! ¡Importados directamente de África!</i></p> <p><i>-Los traje metidos en grandes cajones donde había practicado algunos agujeros y todos llegaron a salvo</i></p> <p><i>-¡Papá! ¡Quiero un Oompa-Loompa! ¡Quiero que me des un Oompa-Loompa!</i></p>
Ilustrazioak	<p>Maila sozioekonomikoa beharbada arropa ezberdinetan nabaritzen da. Wonkak esmokina darama, Charlie eta bere familia arropa zimelduak daramatzate. Oompa-Loompak aldiz, denak daude larru zati batekin jantzita, sorbalda batetik lotuta eta soineko moduan.</p>
Lengoaia	<p>Oompa-Loopak <i>pobre, hombrecillo, famélico...</i> hitzekin erlazionatzen dira. Horrek Wonkaren “lorpena” indartzen du.</p> <p><i>-diminutos pigmeos</i></p> <p><i>-Wonka: Los encontré</i></p> <p><i>-estaban prácticamente muriéndose de hambre</i></p> <p><i>-El pobre hombrecillo, de aspecto famélico, estaba allí sentado intentando comerse un cuenco de orugas aplastadas sin vomitar.</i></p> <p><i>-Oompa-Loompas pasaban todas las horas del día trepando a los árboles</i></p> <p><i>-¡Pobres pequeños Oompa-Loompas!</i></p> <p><i>-El hombrecillo dio un brinco de alegría</i></p>

Kultura	<p>Beren hizkuntza ez da errala, asmatua baizik: <i>hablando no en español, por supuesto, sino en Oompa-Loompas.</i></p> <p>Orokorrean, janarien inguruan, etxebizitzaren inguruan, habitat-a, janzkera... komentatzen da, “<i>Aún siguen llevando la misma ropa que llevaban en la jungla. Insisten en ello. Los hombres, como podéis ver, sólo llevan pieles de ciervo. Las mujeres se cubren con hojas, y los niños van desnudos. Las mujeres se ponen hojas frescas todos los días...</i>” ez da kultura baten irudikapen erreala egiten.</p>
---------	---

Analisirako irizpideak	Deskriptorea-Tintin en el Congo
Segregazioa	Bai, (Kongoko) beltzak eta (Europako) Txuriak. Txuriek orokorrean rol garrantzitsuagoak dituzte. Protagonista Tintin da.
Protagonistak	<p>Beltzak momentu osoantxuriak zerbitzatzen agertzen dira. Adibidez, bidaiari zehar laguntzen dion mutila, Coco, bertakoa da. Tintinek ematen dizkio jarraibide guztiak eta berak “<i>bien señor</i>” erantzun. Coco bertakoa izan arren, Tintini jarraitzen dio. Zerbitzatu egiten dio, bere jarraibideak betez. Beste adibide bat Tintinek tren konpontzeko agintzen dienean “<i>perezosos</i>” deituz, eta hauek egiten dute. Berak ez du esfortzurik egiten, soilik aginduak emanez.</p> <p>Tribuetako buruak dira rol nagusiak edo prestigioa duten beltz bakarrak, eta Tintin ailegatzean burua bilakatzen da. Medikua txuria da, beltza zurgina, barkuaren kapitaina txuria, laguntzaileak beltzak.</p> <p>Afrikara ailegatzean bertako guztiak Tintin eta Miluren zain daude, pozik agurtuz.</p>
Pertsonaiak	Erabakien burua denbora osoan Tintin da, berak esaten duen guztia egiten dute beltzek.
Desitxuratzea	Bai, Europari prestigioa ematen zaio, aurrerapena adierazten du, eta Afrika aldiz atzerapena. Bertakoak tentelak balira bezala aurkezten dira, txuriak zerbitzatzeko baleude bezala. Txuriak ailegatu diren leku guztietan, Tintin edo misiolariak, beltzek hauek jarraitzen dituzte. “ <i>mi ejército equipado a la europea y muy bien entrenado, vencerá fácilmente a los babaorom.</i> ” Europakoa hobea balitz bezala, eta bertakoa balio txikiagoa balu bezala.

Bazterkeria	Gehienak tribuekin erlazionatzen dira, zakil-zorroz jantzita, ezkutuaz eta lantzaz. Misiolariekin daudenak praka eta kamisetaz daude jantzita. Hitza ematean txuriak goraiatzeko eta haien atzerapena irudikatzen du, haien hizkera ez baita egokia.
Paternalismoa	<p>Hau esango nuke dela komiki honen xehetasun nagusia. Beltzak denbora osoan Tintin zerbitzatuz agertzen dira, edota txuriak orokorrean. Logikoena izango litzateke Coco Tintin gidatzea, bertakoa baita, baina alderantziz gertatzen da. Babaorom tribukoak, Tintin burua bezala izendatzen dute. Momentu batean adibidez, saiatzen dira lehoi bati aurka egiten, eta ez dute lortzen, orduan Tintini eskatzen diote laguntza. Miluk eta Tintinek bezatu egiten dute eta tribuak goratu egiten ditu.</p> <p>Haien irudia ere, atzerapenarekin lotzen da. Adibidez, emakume bat negarrez ari da bere senarra gaixorik dagoelako “espirituak zituelako barruan”. Tintinek pilula bat eman eta sendatu egiten dio. Emakumea eskerturik eta sinesgaiztasunez goratu egiten dio.</p> <p>Tintin adimentsu moduan aurkezten da, besteak aldiz ez. Momentu batean, irakasle rola hartzen du Tintinek, 2+2 eragiketa aurkeztuz arbelean. Gelako inor ez da kapaz erantzuten. Beste batek dioena momentu batean hau da “<i>altura: cuarenta y tres metros cincuenta</i>”</p> <p>Tintinek, disko-jogailua eta kamara erakustean, bertakoak txundituta geratzen dira, eta ez dakite zer diren.</p>
Infantilizazioa	Negrilo hitza beharbada infantilizazioan erori daiteke.
Bitxikeria	Estereotipatuak agertzen dira argi eta garbi. Haien janzkerak, txabolak baino ez dira agertzen, atzerapena agertzen da, teknologia ez dute ezagutzen...

<p>Ilustrazioak</p>	<p>Txabolak, janzkerak, azal guztiz beltza, beltzen aurpegi denak berdinak edo oso antzekoak, ezpain erraldoiak, beltzak askotan agertzen dira Tintinen aurrean belauniko, bera gorai patuz...</p> 
<p>Lengoaia</p>	<p>Beltzek ez dute ondo hitz egiten “tu no hacer” “siñor” “tomovil (autoa)” “Venir hombre blanco y pegar negrito” Cocok bere buruaren inguruan negrito bezala hitz egiten du, 3. pertsonan.</p> <p>Istripu bat izatean, emakume beltz batek esaten dio Tintini “tu eres un blanco malo! mira lo que le has hecho al pobre negrito!” Gehienetan negrito hitza erabiltzen da.</p> <p>Ez dute haien hizkuntzan hitz egiten ezta haien artean ere, ez da ezta komentatzen zein hizkuntza hitz egiten diren bertan.</p>
<p>Kultura</p>	<p>Hizkuntza momentu osoan gaztelera da, bertan gaztelera hitz egingo balute bezala, eta bertako hizkuntzak ezta aipatu ere eginez.</p>

Analisirako irizpideak	Deskriptorea-Mila eta bere lagunak
Segregazioa	Milaren aita, ere beltza, haiekin jolasten da arratsalde osoan eta zaintzen ditu. Gero lagunak bila amak datoz, bata Hiyaba darama eta bestea kaukasikoa da.
Protagonistak	Txuriak eta arrazializatuak dauden pertsonaiak daude, rol antzekoekin. Ez dira konparaziorik egiten etnien artean, ezta etniaren aipamenik egiten ere.
Pertsonaiak	Pertsonaiak giza duintasunaren arabera deskribatzen dira. Milak kontatzen du bere gurasoak dibortziaturik daudela eta noizbehinka etxez aldatzen dela. Ez daude estereotipatuak. Eskolara doaz, eta Milaren aitaren etxean askaria hartzen dute, jolasten dira arratsalde osoan eta bukatzean etxera doaz.
Desitxuratzea	Ez dago alteritatearen agerpenik. "gu" bat baino ez da nabaritzen.
Bazterkeria	Ez dago etnien artean bereizketarik edota hierarkiarik. Denek dute hitz egiteko aukera berdina. Dialogoak murrizak dira orokorrean, denak jolasten dira pozik munstroetara, ez dago gainetik dagoen inor, arrakasta edo porrota ez zaio inori lotzen. Arrakasta denek izaten dute ondo pasatzen dutelako elkarrekin. Ez da gizarte mono.-kultural baten moduan irudikatzen, baina ez da bakoitzaren kultura irudikatzen bereziki. Kultura konpartitu ala ez, kulturartekotasuna nabaritzen da.
Paternalismoa	Ipui honetan pertsonak daude, eta etnia bigarren mailako kontua da guztiz, ez zaio garrantzirik ematen. ez da hierarkiarik egoten.
Infantilizazioa	Egiten dutena egunerokotasuneko zerbait da. Haur asko identifikatu daitezke ipuinean gertatzen denarekin, izan ere eskola eta gero etxe batean jolasten duten hiru lagun dira.
Bitxikeria	Herrialde berekoak direla dirudi.
Ilustrazioak	Rol aktiboak dituzte guztiek.
Lengoaia	ez
Kultura	Bai, Omarren ama Hiyaba darama, eta hortaz musulmana da. Gainontzekoen erlijioa ez da nabaria. Milaren gurasoak dibortziaturik daude. Aita da haurrak zaintzen dituenak. Berdintasun egoeran daudela dirudi.

Analisirako irizpideak	Deskriptorea-El mundo es mi casa

Segregazioa	Etnia eta klase sozial ezberdinetako pertsonak agertzen dira, bakoitzak bere inguruko xehetasunak kontatuz.
Protagonistak	Ez dago protagonista bakarra, bakoitza bere historiaren protagonista baita. Txuriak nahiz pertsonai arrazializatuak agertzen dira, eta denek rol berdin-berdina dute. Ez da konparaziorik egiten, bakoitzak berea kontatzen baitu besteekin erlaziorik egin gabe.
Pertsonaiak	Pertsonai ezberdinak beren giza duintasunaren arabera deskribatzen dira, eta haien xehetasun batzuk estereotipatuak egon arren, ez dira errealitatean gertatu daitekeen horretatik aldentzen, pertsonai konkretu horietara aplikatzen baitzaie, eta ez talde oso bati.
Desitxuratzea	“Gu” bat nabaritzen da, eta kultura ezberdin horiek deskribatzen dira, gutxietsiak egon gabe, inor gainetik jarri gabe.
Bazterkeria	Kolektibo ezberdinetako kide konkretuei hitza ematen zaie, haiek dira haien buruaren eta bizi diren herrialdearen inguruan hitz egiten dutenak. Gizartearen aniztasun kulturala adierazten da. Gizartetzat mundua hartzen da, eta bertan kultura ezberdinak daudela islatzen da. Are gehiago, estereotipo batzuk apurtu egiten dira, hala nola, Kenia eta tribuen inguruan hitz egiten da, eta baita Nairobiri dauden etxe orratzen inguruan ere. Edo Londreseko pertsonaia, ez da kaukasikoa, arrazializatu baizik.
Paternalismoa	Ez da hierarkiarik egoten. Bakoitzak bere bizitza du eta horren ezaugarri ezberdinak kontatzen ditu lorpenak haienak izanik.
Infantilizazioa	Informazio erreala ez da fikziozkoa balitz bezala kontatzen, eta gainera istorio bakoitzak protagonista konkretu bat izateak eta bere buruaren inguruan hitz egiteak sinesgarritasuna ematen dio.
Bitxikeria	Herrialde eta kultura ezberdinak, ezberdinak balira bezala aurkezten dira, ezberdinak direlako, eta modu berean diren bezala aurkezten dira. Bakoitzak bere xehetasunak dituela adierazten da, inor “arraroa” edo “bitxiagoa” izan gabe.
Ilustrazioak	Ilustrazioak noizbehinka estereotipo batzuen isla egiten duten arren, beste askotan kontrakoa. Estereotipo batzuk errealitatearekin bat datoz, eta ondorioz ez dira ezkutatu behar. Errealitatea den bezala islatu egiten da, xehetasun kulturalak eskainiz, modu erreal batean. Gainera estereotipoen apurketa ere egiten da, Londreseko protagonistarekin, eta Hegoaldeko Afrikako neskarekin; futbol zelai batean dagoen arren, neska bat da futbola gustuko duena.
Lengoaia	Herrialde bakoitzaren hizkuntza agertzen da, hitz ezberdinak agertzen dira testuan zehar eta alboan horien azalpena. Adibidez Egipton Zeitounen inguruan hitz egiten da, eta alboan <i>zeitoun</i> oliba dela azaltzen da. lehen pertsonan dago kontatuta istorio bakoitza.

Kultura	Familia eredu ezberdinak, hizkuntza ezberdinak, ikuspuntu ezberdinak, hizkera ezberdinak, erlijio ezberdinak... agertzen dira, eta bakoitza modu positiboan dago irudikaturik. Gainera, Izeberg kulturalaren alderdi ikusgarriarenari garrantzia ematen zaion arren, hala nola jantziak edo janaria, beste alderdi batzuei ere ematen zaie garrantzia, hala nola egunerokotasunaren alderdi ezberdinei. Egutero zer egiten duten kontatzen dute, eta bertan izkutatua dauden xehetasun kultural batzuk ager daitezke.
---------	---

Analisirako irizpideak	Deskriptorea-El descubrimiento de América
Segregazioa	la ez dira Espainolak ez diren pertsonaiak agertzen, momentu batean Ameriketako natiboak agertzen dira, Colonek bertatik ekarri zituela komentatuz, besterik gabe. Arabiarrek ere komentatzen dira gainetik, momentu horretan gudan daudela esanez. Protagonista esan daiteke Colon dela.
Protagonistak	Arrazializatuak direnak oso gainetik komentatzen dira. Gainontzeko pertsonaiak Espainolak dira.
Pertsonaiak	Pertsonaiak beren giza duintasunaren arabera deskribatzen dira. Soilik kaukasoarrak dira deskribatzen direnak, Colon batez ere.
Desitxuratzea	Ez da Ameriketako kulturaren inguruan hitz egiten, ezta arabiarren inguruan ere. Espainiaren inguruan eta Colonen inguruan hitz egiten da gehienbat.
Bazterkeria	Gizartea mono-kulturala balitz bezala agertzen da, soilik sakontzen da Espainian eta Colonen historian, Isabel erregina, errege-erregin katoliko eta Juan II. aren inguruan hitz egiten da pixka bat sakonago. Ez zaie izenik ipintzen ez Arabiarrei ezta Amerikarrei ere, eta gutxiago haien inguruan hitz egin edo haiei ahotsa eman.

Paternalismo a	<p>Txuriak ez dira salbatzaile moduan agertzen, baina bai garaile moduan. Historia kontatzen duen modua etnozentrikoa da. Kontatzen da Espainiar ikuspuntutik, Arabiarrei eta Amerikarrei inolako ahotsarik eman gabe, eta haien agerpena oso eskasa izanik:</p> <p><i>españa está en guerra con los árabes y ha sitiado la ciudad para recuperarla</i></p> <p><i>Colón deslumbra a la corte con los maravillosos objetos, animales y nativos que ha traído del otro lado del mar.</i></p> <p><i>Colón llevó la cultura Española y Europea a Europa y trajo gran cantidad de alimentos desconocidos</i></p> <p>(Beharbada Amerikarren ikuspuntutik ez litzateke izango kultura “eramatea”, baizik eta inposatzea, akulturazio prozesu bat jasanez)</p> <p><i>Así termina uno de los proyectos más deslumbrantes de la historia, un proyecto que se realizó gracias a las ideas de un hombre, Colón, que luchó por defenderlas y nunca se rindió, y gracias a una nación, España, que apostó por un proyecto casi irrealizable</i></p>
Infantilizazioa	ez
Bitxikeria	Ameriketako kontuak bitxikeriak balira bezala aurkezten dira, garai horretan, Espainian, guztiz ezezagunak zirelako. Dena den, ez dira historia horrekin gaur egun arte irauten duten arazo sozialak komentatzen, zein ondorio ekarri zituen eta abar. Colonek egindakoa goraiatu egiten da guztiz, horrek eragindako ondorio latzak izkutatuz.
Ilustrazioak	Rol aktiboa Espainolek jokatzen dute, besteek ez dute rolik. Historia honetan badute parte hartzea baina ez da inon agertzen. Amerikar natiboak ilustrazio batean agertzen dira, bizkarrez, ile beltz luzez, gona batez jantzita eta goiko partea biluzik.
Lengoaia	Amerika Deskubritzea, Espainiar kultura bertara eramatea, Granada berreskuratzea... ikuspuntu etnozentriko bat dakar. Beharbada kontrako ikuspuntutik beste motatako hitzak erabiliko lirateke.
Kultura	Amerikako kulturatik janaria baino ez da agertzen, ez dira natiboak agertzen, ez dute rolik ezta irudikapenik ere.

Analisirako irizpideak	Deskriptorea-Estamos aquí
Segregazioa	Protagonisten etnia ez da bereizgarria. gainontzeko pertsonai guztien rola bigarren plano batean egonik burutzen dute. Etnia eta klase sozial ezberdinetako pertsonaiak agertzen dira elkarrekin

Protagonistak	Liburuaren autorea eta ilustratzailea da bere semeari bizitzeko aholkuak ematen dizkion pertsonaia. Bere seme jaio berriari idazten dio ipuina. Hortaz hauek bi dira protagonistak. Haien etnia ez da argia, morez eta urdinez baitaude margotuta. Gainontzeko pertsonai gehienetako etnia bai ikusi daiteke. Batzuk kolore artifizialez margotuta daude, baina beste batzuk ez, eta beren xehetasun kultural, etniko eta sozioekonomikoak nabaritu daitezke ilustrazioen bidez.
Pertsonaiak	Orokorrean lurra deskribatzen da, eta pertsonaiak ez dira deskribatuak izaten. Gizakiak deskribatzen dira orokorrean modu honetan: <i>“Las personas pueden ser de muchos tamaños, formas y colores. Todos podemos tener un aspecto diferente, hacer cosas diferentes y sonar diferentes...Pero que eso no te engañe, todos somos personas.”</i>
Desitxuratzea	Ez da gu eta besteen arteko alderik nabaritzen. Gu bat agertzen da, lurrean bizi garen guztiok osatzen duguna. Nola funtzionatzen dugun orokorrean, nola ikasi dezakegun elkarrekin, zer behar dugun bizirik jarraitzeko...
Bazterkeria	Pertsonai anitz eta oso ezberdinak agertzen dira ilustrazioen bidez. Hitza duen bakarra Jeffers da, bere semeari kontatuko balio bezala.
Paternalismoa	Ez dago hierarkiaren islarik.
Infantilizazioa	Informazio erreala ez da fikziozkoa balitz bezala aurkezten
Bitxikeria	Pertsonen arteko ezberdintasunak ilustratzen dira, baina ez etnien artekoak. Ez da inor bitxiagoa edo arraroagoa balitz bezala aurkezten.
Ilustrazioak	Pertsona anitzak ilustratzen dira, xehetasun askorekin. Pertsona bakoitza ezberdina da, eta batzuk estereotipoak islatu ditzaketen arren, beste batzuk apurtu egiten dituzte. Abaniko zabal bat eskaintzen duela esan daiteke. Etnia eta klase sozial anitzak islatzen dira.
Lengoaia	Ez da hizkuntza arrazistarik nabaritzen.
Kultura	Xehetasun kultural anitzak agertzen dira ilustrazioen bidez. Burka, daraman emakume bat, hiyaba daraman kilorali bat, futbola gustoko duen haurra, kiltaz dantzatzen duen gizona, “emo-a” den pertsona bat, erregina bat, punky bat, rabino bat...